

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

79. zenbakia

95eko urriak 20



Kirola eta osasuna

**Plus Kirol Txartela Gailurrean
ANTZIZAR KIROLDEGIAN**



BEASAINGO UDALA
Gazteria eta Kirolak

I.M.D.
K.U.E.
BEASAIN

Langile auzoa

Caf, Aristrain, Bilore... enpresetako langileak bi-zi diren auzoa da Bustuntza. “Hau Ordizia da, baina auzotarrentzat errepublika independien-tea da. Komertzio eta zerbitzuak ere badaude inguruan. Badauka bai auzoak berezko nortasu-nik”.

Datorren hilean 42 urte beteko ditu Anjel Ugartemen-diak. Baina ibilbide luzea egindakoa da: Apellanizen hasi zen la-nean, Beasaingo Geltoki-ko ‘probintzialean’ sartu eta 9 urte egin zituen ber-tan. Beasaindik Lazkaora (3 urte) eta Lazkaotik Or-diziara. Urte hasieratik dihardu Bustuntzako bu-legoen zuzendari lane-tan. “Billabonan jaio, Beasainen ezkondu eta Ordizian lanean”, eran-tzun digu nongoa den galdetzean. Batxilerra, Kontabilidade Orokorre-ko titulua “eta hemen ba-rruan ikasten den guztia. Egunero ikasi behar da, etengabe, zerbitzu on bat eskaini nahi bada”, adie-razi du Anjelek.

Herritik auzora egin du salto Anjelek. “Herriak berez ezberdinak izaten dira. Diferentzia presioa-rena izaten da; hau da, jende asko, mugimendu asko, operazio asko iza-ten da. 200 edo 100 lagun sartu, hortxe dago dife-rentzia. Bestela lana ba-tetik bestera berdintsua da”, adierazi digu.

KUTXAREN ESKEINTZAK

**Aseguruak, Eperako
Sustapena, Kontu-Gazte,
Aurriskupen Planak eta
Inbertsio Planak.**

Dirua sartu, dirua atera, mota guztietako inber-tsioak egin... hortxe ibil-tzen dira bezeroak. Jubi-lazio planetan sartzen di-renak ere gero eta ge-hiago dira. “Sentsibiliza-tuagoa dago jendea. Izan ere denok baitakigu Gi-zarte Asegurantzia nola dabilen eta garaiz hasi behar da geroaz pentsa-tzen. Planak nahi diren epe eta helburuetarako daude, ez bakarrik jubi-laziorako”. Epe luzerako inbertsioa egiten da jubi-lazio planean Anjelen esanetan. “Zenbait eta beranduago hasi, egin behar diren aportazioak handiagoak dira, azke-nean kopuru handi samar




bat lortu nahiez gero”.

Erretiroa urruti ikusten duten 18-29 urte bitarte-koentzat dena den, Gaz-te-Kutxa plana martxan jarri berri du Kutxak. “Kutxaren kezka beti izan da jende gaztea. Oso kapitulu garrantzitsua da guretzako, gaurko gaz-teak izango baitira gure etorkizuna. Hori piska bat bultzatzeko produktu be-rrri bat jarri dugu martxan. Zerbitzu desberdinak daude, Gazte-Txartela, kutxazain automatikotik dirua ateratzeko txartela, Visa, kontu normalean baino interes altuagoa daukan kontu berezi bat (%4 eta %5eko interesa, beti ere kopuruaren ara-bera). Inzentibo bat izan daiteke jende gaztearen-tzat, aurreztera bultzatu ditzagun eta gure beze-

roek gudan jartzen duten konfidantza primatzeko”, azpimarratu digu billabo-narrak.

Ekonomia piskanaka goraka hasi dela diote adituek. “Langabezi por-tzentaia handia daukagu, lanpostu berriak atera-tzea geroz eta zailagoa da. Baina nik uste dut mo-mentu honetan jendea nahiko lasai dagoela. Hemen hiruzpalau en-presa handi daude eta horien gora-beherekin mugitzen da asunto guz-tia. Caf-ek, Aristrainek... beste hainbat enpresei lana ematen die. Horiek gaizki joanez gero, hauen atzetik dauden beste en-presak ere gaizki ibiliko dira. Orduan, enpresa handi horietan estabilita-tea ikusita, inguru hone-tan asko nabaritzen da”.



**kutxa fundazioa
fundación kutxa**

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

"Goierriarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.

(Postetxe-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Maketazioa:

Mikel Albisu.

Publizitatea:

Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Izaskun Salazar,
Aitziber Murua, Rufino Iraola,
Nagore Goiburu, Aloña Gala-
rraga, Mari Joxe Madariaga, Te-
re Irastorza, Juanita Amunda-
rain eta Alazne Iturrioz.

Fotokonposaketa eta maketa- zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANtA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 5.100 ale. 4.900 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼

Internazionalista Eguna Zaldibian



Askapenak Internazionalista Eguna ospatuko du igandean Zaldibian. Bos-
tgarren edizioa da aurten-
goa, eta beti bezala elkar-
tasuna adierazteko eta
jendea sentibilizatzeko
helburua izango du. "Or-
dizia, Beasain edo Zaldi-
bian egiteko asmoa ge-
nuen. Zaldibikoekin hitz
egin eta hasiera-hasieratik
bultzada handia eman di-
gute. Zaldibitarrek oso
ondo portatu dira eta eske-
rrak eman nahi dizkiegu.
Gainera Zaldibian beti
egon da sentibilizazio
berezia elkartasunarekiko,
internazionalista, briga-
dista asko atera eta ateraz-
ten dira Zaldibiatik",
adierazi digute antolatzaile-
leek. "Orain artean Aska-
penako militanteen festa
izan da Internazionalista

Eguna, urteko lanaren
festa. Baina aurrean irekia-
goa izatea nahi dugu,
edozein herritarrei zabal-
tzea nahi dugu", gaineratu
dute.

Sei area edo gunee izango
dira plazan. Area bakoitza
munduko herri ezberdin
bati dagokio. Bakoitzean
erakusketak, salmentak,
bideoak... izango dira.
Txoznak berriz 2 izango
dira. Bat Askapenakoa eta
bestea Bretoierna. "Laster
epaituko dituzte zenbait
bretoi (100 inguru) euskal
errefuxiatuak babestu zi-
tuztelakoan. Hori dela eta,
bertako garagardoa eta
'crêpe'-ak salduko dituzte,
eta ateratzen den diru guz-
tia epaiketa ordaintzeko
izango da. Britaina eta
Uruguayrekin konprome-
zu berezi bat daukagu, as-
ko zor diegu", azpimarratu
dute. Arratsalde parteko
ekitaldi guztiak eta bazka-
ria berriz, Kiroldegian
izango dira.

Ordiziatik Zaldibiara
joateko autobus bereziak
jarri dituzte. Hauek goize-
ko 9etaik 11etara orduerdi-
ro aterako dira Ordiziako
Estatuatik. Itzultzeko ere
autobusak egongo dira
iluntze aldera.

Besteek esana

"Guardia Zibilak bere etor-
kizuna Lasa eta Zabala-
ren hiltzaileak harrapatuz sal-
batu behar du. (...) Gaur
egungo Intxaurrondok ez
dauka zerikusirik iragan
horrekin. (...) Terrorismoa-
ren aurka lan egiten duten
guardia zibil gazteak pro-
fesionaltasunaren, adime-
naren eta legearekiko
errespetuaren adibide dira".

Juan Mari Jauregik,
'DV'n, 95-X-8an.

"Eragina handiagotu asmoz
ikuslego, entzulego edo
irakurlego eremua zabaldu
eta helburu jakinak lortzeko
edozer gauza egitea egune-
roko ogi bihurtu da komu-
nikabide gehiegitan. (...) Me-
zulari baino gehiago
herrigintzako nor politiko-
rik nagusienetako bat bila-
katu dira; era honetan gi-
zartearen eta herri orde-
karitzaren arteko harreman-
en artekotza nabarmenki
kutsatu eta ahulduz".

Xabier Barandiaranek,
'Egunkaria'n, 95-X-4an.

"Musika garaikidea egiten
dut burua pixka bat landu
nahi dudanean. Musika en-
tzuteko soilik egiten dudan-
ean, ondo pasatzeko,
gehienetan herri musika
egiten dut".

**Aitor Furundarena esku-
soinu joleak,** 'Egunka-
ria'n, 95-X-5ean.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Zuria eta beltza

Mundu honetan grisa da nagusi; ez dago beltz-beltzik, ez dago zuri-zuririk. Beltzean beti izango da zuritasuna eta zurian beti punturen bat beltza (yin-yan). Eta horri esker ez dugu askok geure buruaz beste egiten beltza, zoritxarra, nagusi dugunean; horregatik ez gara pozez txoratzen zuria, zoriona, nagusi dugunean... Beren buruaz beste egiten dutenek beltza soilik ikusten dute, beltzean dagoen zuritasunaz ez dira jabetzen. Eta, aldiz, zuritasunean belztasunik batere ikusten ez dutenak "erotu" egiten dira, ez dira errealtatearen jabe.

Oreka da lortu beharrekoa, oreka pozik eta zoriontsu bizitzearen errezeta. Nola lortu, orde, oreka?, nongo ferian saltzen ote dute?!...

Eguneroko gauza txikiei, gertaera ñimiñoiei erreparatu eta duten balioaz jabetzen bagara, gozatzen badugu, zoriontsuak izan gaitezke. Gauza txikiak badiren ere konturatu gabe, handiei begira bizi direnak, ezin lortuak dakarren inpotentzia bizi, iraun hobeto, eta hilko dira. Putzu txikia zapaldu gabe itsasoan murgiltzen denaz, eraiki!

Joxepa Madariaga

Telebista asko ikusten al duzu?



Felix Goiburu
22 urte, harakina
segurarra

Ia bat ere ez, ezin naiz gelditu egon eta. Kirola bakarrik ikusten dut, edo gauetan pelikula onen bat badago ere bai.



Joxean Garmendia
nekazal teknikaria
28 urte, lazkaotarra

Egia esan gutxi, ezer interesgarriarik ez dut ikusten telebistan. Zapping-ak gainera ernegatu egiten nau, azkenean ez duzu ezertxo ere ikusten, eta ohera alde egiten dut.



Yoli Sadonil
14 urte, ikaslea
lazkaotarra

Bai, normalean egunero 4 edo 5 ordu. Euskal Telebista ikusten dut, Goenkale... Interesgarriak iruditzen zaizkit telebistan botatzen dituzten zenbait gai.

▼ ▼ Aurreko "A ze flaxa!" dela eta ▼ ▼

Beste zaletu askok bezala, ordiziar batzuk 1994an Tourra ikusteko ideiarekin Pirineotara abiatu ginen. Karrera ikusiz gainera, juergatxo batzuk egin genituen. Egun horiek gogoratzeke asmoarekin "oroigarri" bat behar genuen, eta gure aurrean zegoen kartela, oroigarri onena zenez, ba... maileterora eta Ordiziara.

Ordiziako jaietan Matutinan atera genuen, arrakasta handia edukiaz. Harrezkeroztik I.A-ren ohe azpian egon da. 95eko Tourreko beste "oroigarri" batzuekin batera, Ordiziako LXXII. Txirrindulari Proban, Abaltzisketa eta Larraitz bitartean kartelak jarri genituen. Hau ikustean, txirrindulari, zuzendari eta kazetariak parre egiten zuten. Txirrindulari proba bukatu ondoren, karretera ondoko seinale batetan kokaturik utzi genuen eta... norbaitek Zaldibiara ekarri arte.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN



ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g Iurre auzoa
Tfona: 88 09 47 OLABERRIA



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Intereseko Telefonoak

Gure korrespontsalen telefonoak

Ataun:

Jon Aizpurua180139

Beasain:

Izaskun Salazar880313

Ezkio-Itsaso:

Pilare Mujika.....160560

Gabiria:

Gabino Murua160803

Idiazabal:

Aloña Galarraga801375

Itsasondo:

Eduarne Ayuso.....160615

Lazkao:

Iraida Martin883617

Legorreta:

Josune Amondarain...806026

Olaberria:

Nagore Goiburu160616

Ordizia:

Aitor Calvillo160563

Ormaiztegi:

Aitziber Murua.....880998

Segura:

Joseba Telleria889174

Zaldibia:

Rufino Iraola884353

Zegama:

Eduarne Albizu801351

Errezeta



Ixiar Garmediak emana

Altzagarate jatetxea

Altzaga

SAGAR PUDING-a MAHATS PASEKIN

Osagaiak: 4 sagarren konpota, 10 arraultza, 8 kutxarakada azukre, 100 esnegain likido eta mahats pasak.

Lehenik molde bat karameloz egin behar da. Arraultzak azukrearekin batitzen dira. Sagar kon-

pota ere batitu eta arraultza eta azukrearekin nahasten da. Ondoren esnegain likidoa gehitzen zaio. Azkenean mahats pasa batzuk gehitu eta ordu betez baino marian eduki behar da su epelean gehiegi egin gabe.

Bota bertsoa



Ekaitz Goikoetxea
Gaia: Nire burua 25 urte barru

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Bertso munduan ikus naiteke plazarik plaza ibiltzen, lanean berriz, kazetaritzan, albiste ederrak biltzen, emazte eder xarmagarria esku leunez laztantzen eta nire bi ume txikiei ipurditxoak garbitzen.

Ile kizkurrik ez dut izango burusoilduen gisara, hamaika txango egingo ditut mendian hona eta hara, Zahar Egoitzara maiz joango naiz gurasoen bisitara, hola dakusat nire burua hogeitabost urtetara.

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariaratz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

URBITARTE
sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

BUBO
Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin. On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa: 88 28 93
ORMAIZTEGI

Lana

□ Mekanografia lanak makinak edo ordenadorez egiten dira. Eider. 161667.

Etxebizitzak

□ Donostian pisua osatzeko neskak behar dira. 180099.

□ 3 lagun behar ditugu Bilbon pisua osatzeko (Deustuko Unibertsitate ondoan). 882938 (Egoitz).

□ Urretxun kanpokaldera ematen duen etxe bat dago salgai, egoera onean eta amueblatua. Dei iluntzeko 8etatik aurrera, 72 22 03.

□ 2 lagun behar ditugu Barzelonan pisua osatzeko (Arco de Triunfo ondoan dago). Dei 883310 edo 881337 telefonoetara Ainhoa edo Naiaragatik galdetuz.

Salerosketak

□ Kontzertuko akordeoia salgai, Pigini markakoa. Eskubian 63 nota eta 15 erregistro. Baju kromatikoarekin eta 120 baju. Deitu 3etatik 4etara edo 10etatik aurrera, 458706 telefonora.

□ Autokarabana salgai. Mercedes-130, poliester, dutxa, sukaldea, frigorifikoa e. a. Txasisa eta motorra berriak ditu, 800.000 pzta. 450697 Jokin.

□ Labadora bat salgai "Bailay T-8223". Larunbat goizetan deitu. 884580.



ANTZERKIA



✓ Beasain:

Urriak 26, Taun Taun taldeak 'Makinatu' lana aurkeztuko du, Usurbe Antzokian, 20:00etan. Sarrera 500 pezeta.

MUSIKA

✓ Beasain:

Urriak 20, 'Parkingsong' s jazz-bluese taldearen kontzertua Loinatz Tabernan, 23:00etan.

Urriak 28, Tolosako Abesbatzen lehiaketaren barnean, Hallenser Madrigalisten abesbatzaren kontzertua Andre Mari Zeruratuen Parrokian, 20.30ean.



Urriak 28, Gaztelubide Elkartearen 'Il ladrone' opera bufa, Usurbe Antzokian, 23:00etan. Sarrera 1.000 pezeta.

Urriak 29, Lovainako Unibertsitateko Orkestra

sinfoniko Katolikoa, Andra Mari Zeruratuen Parrokian, 19.30ean.

✓ Ordizia:

Urriak 29, Tolosako Abesbatzen lehiaketaren barnean, Symppaatti Choir abesbatza, Elizan 20:00etan

Azaroak 1, Tolosako Abesbatzen lehiaketaren barnean, Cantamus abesbatza, 20:00etan

Azaroak 2, Tolosako Abesbatzen lehiaketaren barnean, Hallenser Madrigalisten abesbatza 20:00

ZINEA

✓ Beasain:

Ostirala 20, "El primer caballero", 19:30 - 22:15.

Larunbata 21, "El primer caballero", 19:30 - 22:15.

Igandea 22, "El primer caballero", 17:00 - 19:30 - 22:15.

Astelehena, 23, "El primer caballero", 19:30 - 22:15.

BESTELAKOAK



✓ Beasain:

Urriak 22, Txirri, Mirri

eta Txiribitonek 'Allakui-daos' ikuskizuna aurkeztuko du Usurbe Antzokian, 12:00etan. Sarrera 1.000 pezeta.

✓ Ordizia:

Urriak 24, ipuin kontaketa, Pello Añorga kontalaria. Barrenako liburutegian 17:00etan.

INTERNAZIONALISTA EGUNA

✓ Zaldibia:

Urriak 22: 10:00etan Txistularien Diana. **11:00etatik 12:30ra,** Zegamako trikitilariak eta Ordiziako dantzari eta txistulariak. **11:00etan** Elkartasunari buruzko topaketa Kultur Etxean. **12:00etan** ongi-etorri ofiziala gonbidatuei Udaletxean. **12:30tik 13:30era** Plazan, Aitor Sarriegi eta Igor Eguren bertsolariak eta Ordiziako Jakintza dantza taldea. Ordu berean haur jolasak futbol zelaian. **13:30tik 14:30ra** Poteo internacionalista eta Tolosako dultzaineroak. **14:30tik 16:30ra** herri bazkaria Kiroldegian. **16:30tik 18:00etara** bertsolariak, Norge Batista eta Tolosako Trikitilari taldea. **19:00etatik 20:00etara** ekitaldi politikoa eta Internacionalista eroriei omenaldia. **20:00etatik 21:00etara** Tumbaito eta Trikitilari taldeen musika saioa.



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.

-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...


-Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batatz beste.

MANDUBIKO BENTA

Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik Goierriako bidean
Tfona: 88 26 73

UDAZKEN KULTURALA



✓ Beasain:

Urriak 20: 17:30ean erraldoi eta buruhandiak.

Urriak 21: 17:00etan Aitz-Zorrotz Ehiz eta Arrantza Elkartean Gozogintza VI. lehiaketa: sagar tarta berezia. 18:00etan trikitilari kalejira eta 19:30ean trikitilari jaialdia San Martin Plazan. 20:30ean Musika Eskolako harizko instrumentuen orkestraren kontzertua Andra Mari Zeruratuaren Parrokian.

Urriak 22: 12:30ean Oñatiko Bandaren kalejira eta 13:00etan kontzertua San Martin Plazan. 17:30ean Barrakudoak Joan Iturralde Plazan. 17:30ean Kale antzerkia, 'Ni fu ni fa' taldearekin Ezkierdi Pilotalekuan. 19:30ean Dantza kalean, Gwynfyd taldearekin, San Martin Plazan.

Urriak 24: 18:30ean Ezkiaga Auzo Etxeko maskota aukeratzeko lehiaketako sari banaketa Ezkiaga Au-

zoko Etxeko Liburutegian. 19:30ean Txistu, perkusio eta piano kontzertua Tolo-sako Udal Txistulari Bandaren eskutik, Udaletxeko Batzarre-Aretoa.

Urriak 25: 17:30ean Irakurketa suspertzeko emanaldia Pello Añorgarekin. 19:30ean Txistu, perkusio eta piano kontzertua Beasaingo Udal Bandaren eskutik, Udaletxeko Batzarre Aretoa.

Urriak 27: 17:30ean erraldoi eta buruhandiak. 23:00etan kafe antzerkia Tira la Floja taldearekin Loinatx Tabernan.

Urriak 28: 19:30etan Gwynfyd taldearekin dantza ikuskizuna San Martin Plazan.

Urriak 29: 9:30ean Udal Txistulari Bandaren kalejira. 12:00etan Goierriko Txistularien kalejira. 12:00etan Pintura Tailerra haurrentzat Joan Iturralde Plazan. 12:30ean Txistu kontzertua eskeiniko dute Goierriko Txistulariek, 'Barrena' Metalezko bostekoak eta dantzariak San Martin Plazan. 19:00etan Kale antzerkia Kukubiltxo taldearekin Zaldizurreta Plazan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Urriaren 29ra bitartean, Beasaingo IV. Aire Zabaleko pintura lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa

Usurbe Antzokian.

Azaroaren 3ra arte, Maitte Gaztelumendiren erakusketa, Aterpe Tabernan.

✓ Ordizia:

Urriaren 27ra arte, Carmen Aguadoren pintura erakusketa Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 22, Otzaurte-Aitzgorri.

Urriak 29, Ganbo-Muitze.

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 22, Euskadiko Beteranoen Martxa, Galda-koan.

Urriak 29, Beteranoen Martxa Ordizian.

Idiazabalgo mendizaleak:

Urriak 22, zabor garbiketa.

GOARDIAKO BOTIKAK

Urriak 20: Atorrasagasti; **21-22:** Jauregi; **23:** Azpilikueta; **24:** Jauregi; **25:** Larnaga; **26:** Cuesta; **27:** Arriola; **28-29:** Azpilikueta; **30:** Urbizu; **31:** Jauregi; **azaroak 1:** Azpilikueta; **2:** Jauregi.



Oilagorrak eta usoak

Ehiza. Horixe izan da azkeneko azoketako protagonistetariko bat. 3 oilagor azaldu ziren, 2.000 pezetan bakoitza; 70 bat uso (900-1.000) eta 100 birigarro (100 pezetan).

Perretxikuak ere, onddoak batez ere, ugari: 70 kilo bertakoak (2.000 - 2.500) eta 100 kilo kanpo-koak (1.000 - 1.500). Nika-loak 5 kilo (800-1.000) eta gibelurdinak kilo eskas bat, 2.500ean.

Bertako fruituetan, mizperoak (350), mahats beltza (200) eta errezil sagarrak (100-200) izan ziren nobedade. Barazkietan berri, Bruselasko azak (400).

Kanpoko produktuetan, lehen gaztainak (300) eta pina (290). Gainontzean, mandarinak 150-280ean, laranjak 175-200ean, azalorak 150-200ean bakoitza eta piper berdeak 250-300ean.

Arkumeak 19 buru saldu ziren 650-700 bitartean.

Arrainak orokorrean garestitu egin dira.

LOINATZ Taberna Jatetxea

Bazkari, afari, ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA



UNED-EN IKASTAROA. Euskal Kultur Departamentuak honoko ikastaro hauek antolatu ditu 95-96 ikasturterako:

* Sakontze maila: Morfonsitaxia, itzulpena, testu-azterketa, dialektologia. Klaseak larunbat goizetan izango dira.

* Ikertze maila: Hau ikastaro berria da. Testu-azterketa, dialektologiaren oinarri teorikoak, garbizaletasuna, toponimoen etimologia, Etxahun-pertsonaia, Gipuzkera literarioaren sorrera... Klaseak larunbat goizetan izango dira.

* Ni-aren idazketa: autobiografia eta diarioak: Hau ere ikastaro berria da. Klaseak larunbat goizetan izango dira.

Matrikulatzeko aukera urria osoan izango da. Telefonoak: 761342 - 43. Goizez 11:00etatik 12:30era eta arratsalde 17:00etatik 20:00etara. Astelehenetan itxita. Larunbatetan zabalik.

VII. GERRIKO Ikerlan-Sariketa

Antolatzaileak:
Goiherriko Euskal Eskola, Maizpide Eskolategia eta Lazkao Udaleko Kultur Batzordea

Laguntzaileak:
Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Euskaltzainketa eta Eusko Fundazioa

Gaierri, 1995



CRISTIAN DOCTOAREA GUTIAREN

ESPALACAOAREN SAYAGUEA,

ESTRUCO PUETO DE NOTICIA PARTIDE

Don Juan de Guzman de Guzman

WITELANDI BENEFICARIO: DUTTA

INSTRUCO GENDRO JACOBAREN BAIKARRERAKO

ALONSO LEBRECHA ALO THUIS

TOLOSAN.

Manuscrito conservado en el Archivo de la Universidad de Tolosa

VII. GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

berriro ere martxan jarri dute Goiherriko Euskal Eskolak, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkao Udaleko Kultur Batzordeak. Oinarriak plazaratu dituzte jada. Ikerlanaren

gaia Goierriri dagokion edozein zientzi alorretako izango da. Herri mailakoa nahiz eskualde mailakoa izan liteke eta edozein garaitako lanak onartuko dira, baina garai jakin batzuen barruan mugatuak egotea gomendatzen da. Lanen luzera, gutxienez 100 Din A-4koa, idazmakina eta biko tarteaz egina izango da. Originala eta hiru kopia aurkeztuko dira. Idazlan guztiek sinaduratzat lema bat besterik ez dute izango. Horri kartazal bat gehituko zaio, eta kanpoko aldean idazlanaren izenburua eta lema idatziko dira; gainera bere barnean, lema, lemarengilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa (dena makinaz). Lanak jasotzeko epea 1996ko martxoaren 22ko arratsaldeko 8etan itxiko da. Sariak: lehena 375.000 pezeta (Gipuzkoako Kutxak emana); bigarrena 275.000 pezeta eta hirugarrena 175.000 pezeta. Lan guztiak Lazkao Udaleko 16-1.a ezkerreko bidali beharko dira.



IKASTAROA BEASAINEN. Bi dira prest dauden ikastaroak:

* Lehena, urriaren 23an hasiko da: saloiko dantzen ikastaroa. 20 orduko iraupena izango du eta klaseak ostegunetan izango dira 19:00etatik 21:30etara.

* Bigarrena, urriaren 25ean hasita: bideo ikastaroa. Iraupena 20 ordukoa, asteazkenetan 19:30tik 21:30ra.

Bietarako izenemateak Udaleko Kultur sailean zabalik daude eta matrikula 3.500 pezeta kostatzen da.

Izaro eta Ugutz RUBIO, Gorka SALABERRIarekin sukaldean eta Iker GALPARSOROK eskeintzen dizute, betiko

Rubiorena

Juan RUBIOren eskutik, astebururako plater eta karta berriekin
ASTEBURURAKO MENUAK

"Iberico"-en platera
Perretxikuen hojaldrea
Bakailaoz betetako piperrak

Bakailaoa piperradarekin
Izokina parrilan
Arkume txuletilak
Ahate konfita Oportorekin

Teilak, izozki eta urrekin

Prezioa: 1.800 pzta.

1.000 Pzta.-tik AURRERAKO
MENUAK ETA GURE BETIKO
KARTA ZERBITZU PAREGABEA
ERE ESKEINTZEN DIZUGU

**Erreserba egiteko deitu
OIANGU JATETXEA**

88 91 06



MUJIKA



BEASAIN

88 74 00

Elkartasuna Bergarako UNED-E.K.D.rekin

Orain dela gutxi zabaldu da Bergarako UNED ikastetxeko Euskal Kultur Departamendua itxi litekeen berri txarra. Bertan lan egiten duten Xabier Pardo, Ana Agirre, Juan Martin Elexpuru, Gerardo Elortza eta Tere Irastortza kale gorrian geratzeko arriskuan leudeke. Euskal Herriko 'Hurreneko Unibertsitate' bakarrak aurrera egitea Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzen baitan dago, nonbait.

Negargarria iruditzen zaigu guzti hau. Ikastetxe horretako ikasle ez izan arren, badakigu zer lan esker-gaitza egin den hor. Euskal idazle eta irakasle ezagunak egiten zaizkigun langile horien irakaskuntz-lanez aparteko kontuak ekarri nahi ditugu hona. Burutu dituzten argitalpenak, esate baterako: nork ez du ezagutu eta behar izan 'EGA Hegan' eskuliburu arrakastatsua? 'Bergarako Euskara', azterketa borobila, berriz, eredugarria izan denik ez dute ukatuko.

Lerro hauetatik UNEDenganako GOIERRITARRAren esker ona adieraztea tokatzen zait denon ize-nean, aldizkariaren sortzaile eta zuzendari-ohi naizenez. GOIERRITARRA ez litzateke izango orain den hamabostekaria orri hauetako

lankidea izan den Tere Irastortza eta Euskara Sail horren laguntzarik gabe. Gure aldizkari hau premia larrian zebilen hasiera batean, eta, Goierriko ate asko ireki ez zitzaizkigun hartan, zabal-zabalik, zerukoak bailiran, aurkitu genituen E.K.D.-koak.

Ondo gogoan dut Deskarga nire motor txikian igo nuenekoa. Kontua ximplea zen: ordainduko zuten 100 harpidedun inguru genituen, baina datu baserik ez genuen eskura inon haiek sartzeko, bidalketak eta kobraketak egiteko. Bergaran izan ginen gehiagotan gerora, eskean berriro. Hango ikasle batzuk Goierriko herrien gainean eginiko tesi eta lanak eskuratu genituen (Xabier Pardok zuzenduak zenbait) eta baita eman ere GOIERRITARRAn, 1. zenbaktik aurrera: 'Iztueta: bizitza bat euskararen alde', Ataungo Kontu Zaharrrak, 'Zegamako Despektiboak', Altzagako batek eginiko Euskerazko Agrikultura (argitaragabea), Ikaztegi-tako euskera, 'Zegamako kontuk', 'Lazkao inguruko esaera zaharrrak', 'Ormaiztegiaren bide berriak', Loinazko Martin Santubaren bederatziaurrena, e.a. (Goierrikoiez gain, beste zenbait eskualde eta lurraldeetako lan haiek argitaratzerik mereziko lukeela esan nahi nuke, bide batez).

Gure elkartasuna adierazi nahi

diegu Tere Irastortza eta bere lankideei, keinuak eta laguntzak preziso diren momentuan dira beharrezko. Ez gero. Guk izan genuen bezala zuengandik, zuek ere izan dezazuela laguntza goierritarrendik. Jendearen matrikulak gehitzea behar omen duzue. Kopuruak topea jo dezala opa dizuegu. Eta aurrera jarrai dezazuela, beti bezala fin lan eginez.

Jon Mikel Arano
(GOIERRITARRAren erredakzio batzordekoa)

Erredazio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azaldutako edozein gairi buruz edota interesgarri izan litekeen beste edozertaz, GOIERRITARRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefonoa edota helbidea, NAN zenbakia eta kaleratu nahi duen sinadura (ezizenez ere izenpetu liteke) eman beharko dira.

IKASTEK AKADEMIA 95-96 IKASTURTEA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Irakasleko trebatua
- Kalitate eta profesionaltasuna

Informazioa: ☎ 16 01 20
Joan Iturralde, 5 BEASAIN


IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



**meca
rapid**

Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 **BEASAIN**

JOSUNE ESTETIKA ZENTRUA



* Mikropigmentazioa:
bekain eta ezpainen
makilaje iraunkorra.

* Kontsulta medikua:
gizentasuna, barizeak,
liposukzioa eta zirujia
estetikoa.

* Kiromasaia: kirol eta
terapeutikoa.

J.M. Barandiaran Plaza, 3

☎ 88 28 88

ORDIZIA



Prentsaren bidez iritsiko zitzaizun, agian, Bergarako UNEDeko Euskal Kultur Departamentua iste-ko darabilten asmoaren berri, horretarako argudiatuz gure eginkizuna egun, euskaltegiak betetzen dutela eta ikasle kopuru murrizta dugula. Euskal Kultur Departamentuak gure egoeraren berri ezagutaraztea erabaki du.

1977ko udazkena zen. Urtebete lehenago sortua zen Bergarako Urrutiko Unibertsitateak sail berria sortu zuen: Euskal Kultura Departamentua. Bere lehenengo pausua Euskaltzaindiarekin hitzarmena sinatzea izan zen D eta B mailako tituluko klaseak ikastetxean eman ahal izateko. Ordurarte azterketa librean bidez bakarrik lor zitezkeen hauek eta Bergarako izan zen ikasleak prestatzen eta bertan azterketak egiten hasi zen lehen ikastetxea. Euskal Geografia, Historia, Literatura, Morfosintaxia, Itzulpena, Lexikoa, Didaktika... eta beste gai asko landu ziren eta material berri ugari sortu zen, gero beste hainbat tokitan ere erabiliko zena.

Ikaslez gainezka gogoratzten dugu ikastetxea urte haietan. Behin baino gehiagotan 1.000 ikasle izatera heldu ginen eta sarrera azterketa baten bidez 200 kanpoan laga beharrean izaten ginen hainbeste jenderendako lekuri ez zegoelako.

1982an titulu banaketa Euskaltzaindiak utzi eta Hezkuntza Sailak hartu zuenean Euskal Herriko lehenengo Zentru homologatua bihurtu zen UNED. Jaio berria zen EGA tituluko ikasketak eman eta azterketak

UNEDeko EKD: 18 urte euskalgintzan

ikastetxean bertan egin ahal izango zituen.

EGA lortu ondoren ikasten jarraitu nahi zutenentzat Sakontze Maila sortu zen 1985ean Itzulpena, Fonetika-Dialektologia, Testu Azterketa, Literatur Kritika eta honelako gaiekin, eta handik gutxira, jendeak gehiago eskatzen zuela ikusita, Sakontze Maila II jarri genuen.

Baina hauek ez dira izan departamentuaren ekintza bakarrak: esandakoaz gain 40 ikastaro berezitik gora antolatu ditu UNEDek euskal kulturaren arlo ezberdinetan: soziolinguistika, literatura unibertsala eta euskalduna, dialektologia, artea, euskararen historia, hizkuntzalaritza, etab. beti gai horietan jantzienak dauden irakasle eta adituak ekartzen saiatuz.

Argitalpenak ere egin ditugu, esate batera: 'EGA Hegan' eskuliburua (25.000 ale salduak) eta 'Bergarako Euskara' herri bateko euskarari buruz egin den azterketarik osoenetarikoa.

Ikerketak ere badu bere lekua: momentu honetan, Bergarako Udalarekin lan-ikidetzan; 'Lexiko Bereziak' proiektuan sartuak gara. Lan taldeen bidez Ikazgintza, Karegintza, Burdingintza, Zurgintza, Ehungintza etab. ikertu dira eta beste arlo batzuekin hasteko asmoa dago datorren urtean.

Ikastaro berrirako, lehen-goaz gain, Ikertze Maila izeneko ikastaroa jarriko da martxan. Ikasleen ikerketa gaitasuna garatzea da helburua eta ohizko ikasketetan jorratzen ez diren euskal filologiako eta literaturako gai interesgarriak landuko dira. Gerora begira 'Idazketa-itzulketak' ikastaroarekin hastea da gure asmoetariko bat, alor honetako beharrak eta eskabideak handiak baitira.

Ez dago ondo geuk esatea, baina euskal kulturaren foko garrantzitsua da Departamentu hau. Hamar mila ikasletik gora pasatu dira bertatik, 150 irakasletik gora aritu dira --tarteetan zenbait euskaltzain--; 200 lan monografiko egin dira, euskara munduaren bilgune eta kontsultaleku bihurtu da.

Esan ikasle kopurua 300 eta 600 artean dabilela azken urte hauetan; EGAK puxkat behera egin du baina beste ikastaroetarako gero eta eskakizun eta egarri handiagoa dago. Diru kontuan, xehetasunetan sartu gabe, esan dezakegu ez dela asko kostatzen departamentu hau, matrikuletako eta bestelako sarrierak inportanteak baitira.

Departamentuaren gainean laino beltz bat kokatu den une honetan, dagokionari eskatzen diogu gure iragan onari etorkizun hobeaz ziurta diezaiola, eta aldi berean gure ikasle eta irakasle diren, izan diren, eta izango direnei, eta oro har euskaltzale guztiei, beren bultzada eta animoa.

Bizimodu luzea eta emankorra izango dugun itxaropenean, Bergarako UNEDeko Langileen Asanblada.


"Ez dago ondo geuk esatea, baina euskal kulturaren foko garrantzitsua da Departamentu hau. Hamar mila ikasletik gora pasatu dira bertatik, 150 irakasletik gora aritu dira, 200 lan monografiko egin dira"

Beasainen 'katea' berreskuratu da

Herri askotan dugu 'Katea' izeneko kale edo auzoren bat. Beasain da horren adibide eta aldi berean gaurko albiste. Izan ere, Josetxo Zufiaurre etnografo beasaindarrak, atera berri duen "Beasaingo Paperak" liburua --Beasaingo kale-izenen historia-- egiten ari zenean, bururatu zitzaion bazela Beasaingo Kiroldegia egin aurretik zegoen Gasparrenea edo Piparrenea baserri-tabernan halako haririk. Baserri hori Zelaia Konstruktoreak bota zuen Kiroldegia egiteko. Jose Zelaia zenaren alargunarena jo eta bi harri horiek gordeta zituztela jakin zuen Zufiaurrek. Udaltxean ate joka hasi, harriak garbitu eta berjarriak izan dira Antzizar Kiroldegiaren lorategietako batean. Era honetan gure aintzinako foruen sinbolo txiki bat berreskuratu du Beasainek eta Zufiaurrek aitortu digunez, "ez dute herri guztiek berea mirestetik".

Zer zen 'Katea'?

Sarritan entzun dugu "Katea" kalea. Baina zergatik deitzen zaio "Katea"? Horren erantzuna Josetxo Zufiaurrek eman digu "Beasaingo kale-izenen historia" liburuan. Herriko sarrera zenean kale honen hasieran kokaturik egon zen udal-legartegia. Legartegi horretan udal-zergak kobratzen zitzaizkien herrira sartzeko ziren merkagai guztiei, foruen garaian herri bakoitzak horretarako eskubidea baitzuen. Merkagai horiek noski,



Josetxo Zufiaurre: "gure foruen sinbolo txiki bat berreskuratu da".

idiek tiratutako gurdietan, edo bestela zaldiz tiratutako beste orga ari-nagoetan garraiatzen zituzten.

Legartegiaren eta bideaz bestaldean zegoen zutarraren artean, kate batek bidea zeharkatu eta igarobidea ixten zuen. Beasainen, Gaztelatik zetozen bi bideak, San Adriango leize-zulokoa eta Arlabango mendatekoa elkartzeko ziren lekuan zegoen kate hori.

Bidegurutze horretan bertan, baserri zahar bat zegoen, gero Gasparrenea edo Piparrenea izeneko taberna izan zena, gaur egungo Kiroldegia eraikitzeke bota zuten arte. Baserri

horren albo batean ezagutu genuen, lurreratua, gaur egun monumentu gisa berreskuratua ikusten dugun harlanduzko zutarrak, non aipatu katearen muturretako bat lotzen baitzen.

Probintziako aduana

Martin Mendizabal apaizak 'Beasain Jaietan' urtekarian adierazia duenez, 1851 eta 1869 urte bitartean probintzia mailako aduana izan zen Beasaingo 'Katea'. "Estatuak Etxegarateko errepide berria egin zuenean, beste probintzietatik zetozen merkagaiak ere Beasaingo 'Kate'-tik pasatzen ziren. 1869an errepide horren kudeaketa Diputazioari utzi zionean, aduana Etxegaratera eraman zuten", Zufiaurrek jakitera eman digunez.

Oroigarritzko plaka

Monumentu honen inaugurazioa joan zen asteartean egin zen ekitaldi xume batean. Bertan plaka bat jarri zitzaion kate-harriari. Honela dio plakak, euskaraz eta gaztelaraz: "Foruen garaian herrira ekartzeko ziren salgai guztiekin zergak ordainarazi ahal izateko, sarbidea katez zeharkatuta ixten zen. Hau da Beasaingo katearen jatorrizko zutarrak".

L.A.



Munduko
hizkuntza
zentruen
erakunde
handiena

inlingua

HIZKUNTZAK

95 -96 IKASTURTEA

5 urtetik gorako haurrentzako talde bereziak
Cambridgeko azterketarako prestaketa

ORDIZIA
Elkano,8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

ZUMARRAGA
Iparragirre,8
☎ 72 22 23

Ba al dakizu?

ORMAIZTEGIKO

ALKATE OHIARI, Juan Karlos Leturiari (EAJ) 20 eguneko arrestoa eta 40.000 pezetako zigorra ezarri diote, 1994ko uztailaren 6an ormaiztegiar gazte bat jo zuelakoan. Uztaileko egun hartan Gazte-txearen arazoari buruzko pinta-dak egin, Arkaitz Guerrerok motxilan spraiak zituela uste izan eta motxila kendu zion omen alkateak. Arkaitzek gertatu zena Unai anai zaharragoari esan, Unai motxila eskatzera joan, eta orduan jo omen zuen alkateak.



errekan amuarrain ugari azaldu ziren hilda. Udalak salaketa jarri, Diputazioari isurketaren berri eman eta hortik etorri da isuna.

J.M. ALDAIA ENPRE-

SARI BAHITUAREN askatasuna eskatzeko manifestazioa egin zen Ordizian urriaren 5ean, Gesto por la Paz taldeak antolatutik. Plaza Nagusitik abiatu eta herriko kaleak zeharkatu zituzten manifestariak. Udaletxe azpian bien bitartean, 'Gazteok erantzun beharrean gaude' pankartaren atzean zenbait gazte bildu ziren. Ertzaintza inguruan izan zen, eta ez zen istilurik izan.

EHIZ-POSTUTIK ERO-

RITA hil zen urriaren 12an Juan Maria Telleria Mundiñano beasaindarra Olaztin. 20 metroko altueran zegoen postua.


“EGUNKARIA” BE-

RRIARI ONGI-ETORRIA egingo zaio ostiralean, 20an. Maketa eta edukia aldatutik etorriko zaigu 'Euskaldunon Egunkaria'. Horretarako 3 afari antolatu dira Goierrin. Lazkaotar eta beasaindarrek talo eta kanta afaria antolatu da Lazkaoko Gerriko Elkartean, gaueko 9etan. Ordizian berriz, Argi Berri Elkartean izango da afaria, 9etan. 2.000 pezetako kostako da. Eta Azkenik, Seguran ere izango da afaria. Menua mondejuak, haragi gixatua eta postrea, guztia 1.200 pezetan. Ordu batean ongi-etorria egingo zaio "Egunkaria"ri.

INTERPRETAZIO

ZENTRUA eraikitzeke asmoa dute Ataunen Joxe Migel Barandiaran zenaren omenez. Proiektuaren arduradunak adierazi duenez, "guk ez dugu museo hitza erabili nahi, Interpretazio Zentrua baizik. Museo batean objektu materialak gorde edo erakusten dira. Gure proiektuan ere badu lekurik Joxe Migeli buruzko museo txiki batek, baina ez da hori proiektuaren ardatza". Joxe Migel

Barandiaranek landu zituen gaiak, bizitako ingurua eta utzi zuen ondarea izango dira Interpretazio Zentruak landuko dituen gaiak.



ANDONI URRESTARA-

ZU ordiziar preso hilaren 19an dira epaitzeko, intsumiso izateagatik. Andoni Urrestarazu Alcalako kartzelan dago, 10 urteko kartzela zigorra betez, sabotaietan parte hartu zuelakoan.

BILOREK 600.000 pezeta-

ko isuna ordaindu beharko du uztailean egin zituen isurketak direla medio. Isurketaren ondorioz Amundarain

RUANDAN igaroko dute hila-bete Jokin Izagirre segurarrak eta Txomin Barandiaran lazkaotarrak, hango misiolari euskaldunekin elkar-lanean. Leonardo Esnaola misiolari

ZABALE
OKINDEGIA
DIETETIKA

- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

ILEAPAINDEGI
MISTOA
XerLo


Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte) Tfnua.: 16 11 05 BEASAIN

lazkaotarra dagoen misiora joango dira lehenengo. Han eguzki plaka batzuk jartzeko asmoa dute. Ondoren instalazio elektrikoa prestatuko dute Kaienziko maternitate batean, eta Mujina uraz hornitzeko lanetan ariko dira. Bidaia euren poltsikotik ateratako diruaz ordainduko duten arren, herriko jendeak ere euren laguntza eskaini nahi izan du Txomin eta Jokin hara zihoazela jakin ondoren. Lazkaoko Udalak garapen proiektuetara zuzendutako dirutzatik milioi bat pezeta eman die, han Esnaolak zuzentzen duen misiorako.



XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU ezkiotarrak Imajina Ezazu Euskadi lehiaketako euskarazko ipuin saria jaso du, "Pepinen itzulera" lanarekin. Mendiguren itzultzailea da lanbidez, literatur itzulpen ugari egin da alemanetik eta errusieratik besteak beste. Sortze lanean halere, ez da oso aritua. "Egunkaria"ri adierazi zionez, "udan denbora pasa antzean egon nintzen bolada batean, zeregin handirik gabe, eta orduan bururatu zitzaidan ipuina idaztea". Duela

40 bat urte bere baserrian izandako gertakari batean dago oinarritu ipuina, % 75 edo 80 erreala omen da. Aurrera begira beste eleberri lantxo batzuk idazteko materialea prestatua omen du ezkiotarrak.



'BEKATUAREN ITZALA' izeneko liburua kaleratu berri du Xabier Mendiguren idazle beasaindarrak. Txomin Agirre saria irabazi zuen iaz nobela honek. Herri txiki bateko apaiz batek haragizko bekatuaren kontra daraman gatazka islatzen du liburua. Mendigurenek, "ia sexurik gabeko nobela erotiko" bezala deskribatu du liburua.

TOLOSAKO ABESBATA LEHIAKETA GOIERRIN. 4 kontzertu izango dira guztira Ordizia eta Beasainen. Urriaren 28an Beasaingo Parrokian, 20:30ean, Hallenser Madrigalisten (alemaniarrek) abesbata izango da. Urriaren 30ean Ordizian, Symppaatti Choir (finlandiarrek), azaroaren 1ean Catamus (ingelesak) eta azaroaren 2an Hallenser Madrigalisten. Guztiak Elizan, iluntzeko 8etan.



GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA martxan da berriz. Goierrin bi kanporaketa izango dira: azaroaren 5ean izango da Ataunen (Auzoeta Kiroldegian, 17:30ean). Mikel Mendizabal eta Jose Ramon Elorza goierritarrek izango dira partaide besteak beste. Abenduaren 3an berriz Ordizian (Majori Kiroldegian 17:30ean) finalaurdenak jokatu dira. Gainontzean hona hemen goierritar bertsolariak non eta noiz jokatu dituzten kanporaketak: Iñaki Murua, Jose Munduate eta Aitor Sarriegi urriaren 20an Usurbilgo Kiroldegian, 22:00etan; Xabier Zeberio urriaren 22an, Arrasateko Amaia Antzokian, 17:30ean; eta Mikel Aranburuk azaroaren 1ean, Alegiako Pilotalekuan, 17:30ean. Argazkiko A. Sarriegi da parte hartzailearik gazteena.

AMAIA INSAUSTI ETA MANU HURTADO protagonista izan ziren Tolosako crossean. Olaberritarra irabazle izan zen emakumeen kategorian, 10 kilometroak 34.58-ko denboran egin zituen. Beasaindarra berriz hirugarren izan zen gizonezkoetan, 30.27-ko denborarekin.

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabe

Larraitz bidea



GAINTZA

88 98 48



KOLDO TRIKITIXA ESKOLA

Giro jator eta atseginean ikas dezazun zuk aukeraturikoa

88 50 85

LAZKAO

Lehengo eta oraingo haurrak

*"Don don, belandron
zazpi gizon dantzan,
zu mozkorra, ni mozkorra
trikitrin kanpora"*

Hau zen dozenaka joku hasteko egon zitezkeen kontatzeko eratako bat. Gaur ez da ia umerik ikusten honelako kontaktak egiten. Gaurko umeek ez dute jolasten, ez dakite jolasten, ez lehengoek bezala behintzat. Hori da behinik behin kalean gero eta zabalduagoa dagoen iritzia. Okupatuegiak daude egunero 2-3 orduz telebista edo bideoa ikusten, bideojokuen aurrean aritzen edota klase partikularretara joaten. Jolas egiten badute ere, hauek indibidualak izaten dira, joko tresnak erositakoak eta gainera dena eginda ematen zaie. Adituen ustez, gaur egungo umeak indibidualistagoak dira, kontsumistagoak, konpetitiboagoak, barnerakoiagoak, sormen gutxiagokoak, ez hain "as-toak" eta ez hain autonomoak. Bata ala bestea hobe den esatea ez da gure lana, bakoitzak bere ondorioak atera ditzala, eta denborak esango du.

Atzoko eta gaurko ume bati galdera bera luzatu diegu.

Zaharra:

G.- Nola pasatzen zenuten eguna?

E.- Kalean, mendian, errekan, portikopean, frontoian edo lagun baten baserrian baina beti jolasean. Eskolatik irten eta etxera joateko azken momenturaino. Han ibiltzen ginen anaiaren baten arropak sobrate genituela belaunak eta ukabilak gehienetan urratuta, zapatilak puskatuta eta ia egunero zerri eginda. Orduan ez zegoen telebistarik eta oraingo makina-txorik. Jolas asko geuk asmatu eta inprobisatzen genituen, jolasetarako behar genituen hainbat traste ere geuk eginez.


G.- Zertan jolasten zenuten?

E.- Azalpenak beste baterako utziko ditugu, jokuak eta ez denak aipatu bakarrik egongo ditut. Jolas batzutan urte



osoan aritzen ginen eta beste batzuk bere garaia izaten zuten. Tronpan adibidez negu aldera ibiltzen ginen, eta kanikatan, plottean edo trianguloan uda partean. Geuk egindako kanikak, mendian buztina hartu, tamainu ezberdinetara moldatu, panaderiko labean lehortu, norbaiti kenduta barniza eman eta listo! Hauez gain han ibiltzen ginen (Laureano Telleria segurarrak eman digu zerrenda), izkutatzeketan, harrapaketan, puxeketan, aideketan, katarraketan, arbolaketan, irtenberrioketan, pañuelotan, epajakotan, epasantotan, aballan, pikoketan, txapatan, txorromorroketan, gizonetan, santuketan, untxuntxurrean, marroketan, aittepuntakotan, tabatan, tiragoman, etatxeketan, etapatan, pelota persianan, zuzillen, soka saltoan, ontzi txikitan, dendaritan, amatan, gaixoketan, guardias eta ladronesetan, punean, txorizo estiratuan, harrian, makilaz kubieta joka, goitibeheratan...

Horiez gain garaian garaiko fruta harrapaketan (gereziak, sagarrak, mahatsa...), kabi bilaketan, zepotan, zuhaitzetan xiburu montaketan, txabolak egiten, norbaiti kendutako bizikleta zaharren batetan, trapuz egindako baloiarekin futbolean, edo edozein bihurrikeriatan.



Gaur egungo umea:

G.- Zer egiten duzu egunean zehar?

E.- Ikastolara joan eta handik ateratzen naizenean, batzuetan jolastu egiten dut, beste batzutan Kristau Ikasbidera joaten naiz, eta beste batzuetan ingeleseko partikularrera. Astean hiru aldiz joaten naiz ingelesera. Orduan ez dut jolasteko denbora gehiegirik, orain azkar iluntzen du eta.

G.- Zertan jolasten duzu?

E.- Futbolean, harrapaketan, izkutaketetan, stopean, sokasaltoan, goman. Telebista gauean ikusten dut.

Helduok ez al dugu zer pentsaturik?

Azken 50 urte hauetan, bizimoduak erabateko aldaketa jo duela begi-bistakoa da. Aldaketa horien barnean, haurraren jolas eta jokuak egin ditzuten eraldaketei begirada bat botako diegu. Aldaketa, soka luze bat bezala hartuko dugu, ez delako bat batekoa izan. Prozesu guztia aztertzen jarriko bagina oso luze joko lukeenez sokaren bi muturrei begira geratuko gara.

Sokaren lehen muturra

Lehen muturrean, hau da, orain dela 50 urte inguru ez dugu erositako jostailurik ikusiko. Hala ere, horrek ez du garai hartako haurrak ez zuenik jolasten esan nahi. Nola jolasten zuen orduan jostailurik gabe? Bakoitzaren ingurua zen jostailua; ingurua eta inguruko edozer tresna. Adibide gisa, sokasaltorako soka dugu. Baserriko haurren batek inguratzen zuen gehienetan, une edo garai hartan libre zegoela aprobetxatuz. Intxaur garaian berriz, neurri eta pisu desberdinetako intxaurreak bildu, gero 'kliskean' jolasteko. Horrela, jolasak eta jokuak, urte-garaietara egokitzen ziren, gaiak eskuratzeko aukeraren arabera. Edozein tresna jostailu bihur zitekeen, arau batzuk adostasunez prestatu eta jokua martxan zen. Tsaziren tresnaren gabeko joku ugari ere, gaur egun oraindik bakanen batzuk dira.

Joku guzti horietan, taldeak garrantzia berezia zuen. Taldea osatzeko berriz, adinak ez zuen gaur egungo indarririk. Auzoko haurrak elkartzea nahikoa izaten zen. Beste aldetik, eskolako orduetatik at eta ilundu bitartean, jolas-torduak amankomunak ziren orokorrean. Txikiek handien babesean ikasten zituzten jokuak, partaide izanik. Arauetara mugatzea derrigorrezkoa zenez, bakoitzak bere ahalmena garatu beharra zuen, taldeko jokuetan bizkorra eta iaioa zen, aukeratua izan zedin. Txikienari ere adi ibili beharra tokatzen zitzaion.

Taldeen dinamika oso bizia izaten zen, *kalea* eta *taldea*, horixe zen jolas-



torduak gozatzeko oinarria. Behin etxera joan eta gero gainera, beti izaten zen lantxo edo eginkizunen bat, orduan akabo bakoitzak nahi zuena egiteari; ama, aita edo helduagoren esanetara mugatu beharra derrigorrezkoa zelako.

Sokaren beste muturrean

Sokaren beste muturrean, gaur egungo egoera dugu. Haur bat dagoen lekuan ez da jostailurik falta, zer falta gero, ez da jostailu bat gehiago sartzeko tokirik egoten, apalak eta zokoak tresnaz gainezka ikusiko ditugu. (Zenbait etxetako jostailuen inbentarioa eta beraien erabilerari buruzko balorazioa egitea polita izango litzateke!). Jostailu eta tresna asebateak eta haurra berriz telebistari begira! Telebista edo makinatxoei botoiak sakatuz. Haurrak ikusten duen oro nahi du eta maiz lortzen du. Bizilagunak edo ezagunak duen guztia lortzeko eskubidea du. Kontsumismoaren eragina itzela da.

Beste aldetik, gaur egungo joera dugu tartean, hau da: haurrak zenbat eta txikiago hasi, gehiago ikasiko duela koan, bere gurasoek hor bidaltzen dute, dantza, musika (atseginenak jartzearen), ikastetxetik at antolaturiko zenbait ekintzetara. Horrela, haurraren denbora libre (jolastordua?) antolatua eta bideratua dago, berak ez du irtenbide bila ibili beharrik. Egunaren amaieran nekatua egon ohi da eta ez du

inplikazioa eskatzen duen jokuetarako gogo edo ilusiorik. Haurrak bere-berea duen jolas beharrari, denborak mugak ezartzen dizkio, leher eginda bukatzen du eguna, ez ordea jolasa, sormena, antolaketa eta besteekiko harremantzen jaurti dituen indarrak eragina.

Guzti hau kontutan hartuta, azken aldi honetan, zenbaitetan haurrak bere antolaketatik at funtzionatzeko zailtasunak dituela ez al duzue somatu? Badakit hau ez dela orokorra, baina nahi baino sarriago entzun izan dut haurren bat aspertuta (agobiatuta) dagoela esanez edo talde bat jarrera berdinean. Telebista edo antzekoren bat aurrean ez badu ez daki bere denbora antolatzen. Taldean dabilenean ere bere iniziatiba murriztua du, inork bere gustuko zer-bait antolatzeko zain dagoelarik; antolatu eta gero muzin egitea ere ez da harritzekoa izaten. Aspertzen bada beste norbaiten errua da; berak gozatzeko eskubidea du, baina inolako ahalginik egin gabe. Udalekuetan eta irteeretan arazo hau garbi ikusten da.

Taldeak osatzeko, adina baldintza nagusia da orain (herri txikietan behar bada ez) horrela zaharragoetatik ikasi ahal izateko aukera galduz doa, ikusi bai, ikusten dute zaharragoek zer eginguten duten, baina ikasteko bizi ere egin behar da hor barnean.

Guzti honen ondorioz, heldutasunera iristean, ez al da pertsona pasibo bihurtzen? Arazoren bat datorkionean, irteeraren bila saiatu ordez, desilusio eta larritasunean murgilduaz? Hau ote da gaztarora inguratzean, etxean ezin egonaren 'sindromea' sortzen duena? Haurtzaroan galdu duten jolas garaia berreskuratu beharra? Helduok ez al dugu zer pentsaturik? Haurra haur den berehala heldu nahi dugu eta beste aldetik heldutasunera iristeko eginkizun txikienak ere ez digu betearazten. Horren oinarrian ba ote dago joku antolaketa, manipulazioa, irudimena... landu, bizi, garatu ezaren arazoa?

 **Juanita Amundarain (Ordiziako Jakintza Ikastolako irakaslea)**

ORDIZIA

Gune historikoa ondasun kulturala izango da

Urtea amaitu bezain pronto Lakuako Kultura Kontseilariak Ordiziako gune historikoa ondasun kulturaltzat joko du. Honen barnean kategoria desberdinak daude eta hemengoa multzo monumental gisa hartua izango da. Beraz, hortik aurrera herrigunean dauden eraikuntzak maila desberdinetan sailkatuak izango dira. Kontutan hartu beharko da eraikin hauek ordezkatu daitezkeen ala ez edota zati bat edo eraikin osoa kontserbatu behar den ala ez.

Rugbykoei ezetza

Trebijano rugby-zelaiko obrek aurrera darraiten bitartean hasi berriak dira kategoria ezberdinetako liga ihardunaldiak. Obrak laister amaituta egongo diren arren, datorren denboraldiarte ezin izango da zelaia zapaldu, belarra hazi eta indartu arte itxaron behar baita. Hau dela eta, rugbykoek udalari aurtengo denboraldia Altamiran jokatzeko baimena eskatu zien, etxeko partiduak Ordizian jokatzeko leku aproposagorik ez baitago.

Gobernu batzordeak, hainbat bileraren ondoren, eskaera aztertu eta rugbykoei ezetza ematea erabaki dute, Altamirako zelaia ez baita egokia rugbyan aritzeko zenbait teknikoren iritzi. Ondorioz aurtengo ere rugby talde ezberdinek kanpora joan beharko dute etxeko partiduak jokatzera. Hori bai, batzordeak adierazi dienez desplazamendu hauengatik sor daitezkeen gastu guztiak udaletxearen esku geratuko dira.



Horrezaz gain Ordizia Rugby Elkar-teak Trebijanoko aldagelak erabiltzeko baimena izango du lanak amaitu bezain laster. Esan hauek guztiak eraberrituta daudela jada.

XII. Futbito txapelketa

Hasi da aurtengo ere Lagunarteko Futbito Txapelketa. Hasi batean egingo zen ala ez zalantza egon baziren ere azkenean 3 herritarrek hartu dute XII. txapelketa antolatzeko ardura (Txuki, Emilio eta Agustín). Dakizuenek neurketak Majori Kiroldegian jokatzen dira, larunbatetan eta igandetan (ordu libreak aprobetxatuz).

Aurtengoan 21 izan dira izena eman duten taldeak eta antolatzaileek bi multzotan banatu dituzte. Hurrengo fasera pasako direnak bi multzoetako lau lehenengoak izango dira. Aipatu

iazko txapelduna eta txapeldunordea faltako direla aurtengo, Beasaingo Auspalpro eta Alegiko Santor Sagardotegia. Hauek falta badira ere emozioa ziurtatua egongo da.

Herri Antzokiko obrak

Orain hilabete adierazi genizuen beazala, antzokia kokatua dagoen edifizioko bigak egoera txarrean daudela eta, obrak hasi zituzten udan, zinema itxiz. Esan genizuen baita ere urrialderako lanak amaituta egongo zirela eta Herri Antzokia irekia. Baina udaletxeak jakitera eman duenez espero ez zituzten zailtasunekin topo egin omen dute berrikuntza aurrera daramatenek eta, beraz, abisu berririk izan arte ez da zinema irekiko.

 Aitor Calvillo

Muguet

Santu guztiak: hildakoentzat zentruak
Emaztegaientzako loreak

Bulego eta kafetegietarako zentruak

Enkarguak: 88 98 83 ifnoan.

Geltokiko Kioskoa ORDIZIA


ZORION INSAUSTI

DIETA PERTSONALIZATUAK: argaltzeko,
kolesterolari, azido uriko, kirolari, eta abarrentzat.

Kale nagusia, 8
88 13 37

ORDIZIA

Beasaingo kale-izenen historia kalean



'Beasaingo Paperak' aldizkariaren 4. alea kaleratu berri du Udalak. Oraingo honetan, Josetxo Zufiurre etnografoak Beasaingo kale-izenen historia bildu digu. Kale bakoitzaren historia labur eta interesgarria, kaleen argazki eta jada desagertuak dauden baserrien ilustrazioekin lagundurik. Guztira 52 kale eta plaza, gehienak mende honetakoak, guztiak alfabetikoki ordenatuak.

'Katea'ren monumentua

Pasa den asteartean 'katea' monumentua eta bertan jarri zen plakaren inauguraketa egin zen. Monumentua Kiroldegiko lorategian dago kokatuta. 150 urte inguru ditu kateharri honek. XIX. mende erdialdera bide nagusian zeuden herriek kate bat izaten zuten herriaren sarreran, bertan herrian sartzen ziren merkagaiei zerga bat ezartzen zitzaien. (11. orrian duzu informazio gehiago).

Harrera bulegoa

Informazio eta harrera mekanismoak eta ohiko tramite administratiboak arrazionalizatzearen beharra ikusi zuten Beasain, Ordizia eta Lazkaoko Udalek. Gauzak honela Eudelekin elkarlanean, Tubsan enpresak landu duen proiektua martxan jarri da Beasainen. Harrera Bulegoa, udaletxean bertan



Agintari ugari bildu zen Harrera Bulegoaren aurkezpenean.

dago, "eskilararik igo beharrik ez dago" Jon Jauregi alkateak esan duenez, eta goizeko 9etatik ordu batera egongo da irekita (telefonoa: 88 59 00). Informazioa eskatu, dokumentuak tramitatu, zerbitzu militarari dagozkion tramiteak egin, zerga bilketa eta erreklamazioak, obrak egiteko, establezimenduak irekitzeko eta titularitatea aldatzeko lizentzien eskaerak, dokumentuen konpultsaketak... guzti hori egin daiteke Harrera Bulegoan.

Urriaren 9an inauguratu zen bulego berria. Diputazioko Lehendakariatzako diputatua den Joakin Villa, Ordizia eta Lazkaoko alkateak, Juan Manuel Barandiaran Goiekiko lehendakaria, Beasaingo Udaleko zinegotziak... eta beste partaide ugari izan ziren egindako aurkezpenean.

Kiroldegia eguerdietan irekita

Dagoeneko Antzizar Kiroldegia eguerdietan ere irekita egongo da, erabiltzaile kopuruak nabarmenki goruntz egin baitu. Hori dela eta, asteen zehar 22:00ak arte egongo da zabalik; larunbatetan 19:30ak arte eta jaiegunean 13:00ak arte. Aurten Kiroldegiak 217.500 erabiltzaile inguru izatea espero da. Kanpoko igerilekuetatik 20.557 lagun pasatu dira aurtengo udan. Asteen zehar 800 erabiltzailetik gora izaten dira; larunbatetan 200 eta jaiegunean 100. Bestalde, bizkar hezurrarentzat prestaturiko 'Bizia-Osasuna' programa terapeutikoak harrera bikaina izan du. urrian 3 talde jarri dira

martxan, 31 lagun guztira. Lurrin bainuak ere arrakasta ona izan du. 38 egunetan Sauna-Lurrin Bainua zerbitzuetatik 2.373 lagun pasatu dira. Egun berean 130 pertsonak ere erabili izan ditu zerbitzu hauek.

Polizak euskaraz

Orainarte aseguru-

polizak erdara hutsean egiten baziren ere, hasiak dira horietako zenbait euskaraz egiten. Dagoeneko 4 mota ezberdinetako polizak egin ahal izango dira euskaraz: etxebizitza-aseguruarena, bizi-aseguruarena, istripu-aseguruarena eta jubilazio-aseguruarena. Argibide gehiago jasotzeko Udaletxeko Euskara Zerbitzura zuzendu behar da.

Futbol-zelaiko argiztapena

Orain dela bi urte Loinatz futbol-zelaiko argiztapenerako aurkezturiko proiektua ezeztatua izan bazen ere, legaldi berrian berriro aurkeztu eta onartu egin da. Gobernu Batzordeak 5 enpresa ezberdinek aurkezturiko proiektuak aztertu ondoren Anoeta estadioko argiztapenaz arduratu zen Lasarteko 'Montajes Electricos' enpresari eskeini dio argiztapena ezartzeko aukera. Lana egiteko 60 egunetako epea izango dute eta 12.029.000 pezetatoko kostua suposatuko du. Futbol-zelaiko 4 angeluetan 24 metrotako altuera izango duten 4 dorre ezarriko dira, bakoitzak 8 argi izango dituelarik eta argindarra moztan den kasuetarako, elektrogenoak ezarriko dituzte. Lana berandue- nez abenduaren 10ean jokatu- ko den Beasain-Sporting partidurako amaitua egotea espero da. Honek partiduak telebistaz erretransmititu ahal izateko aukera emango du.

 Izaskun Salazar

Kultur Astea asteazkenetik aurrera

Udaleko Kultur Batzordeak antolatu du aurten ere Kultur Astea. Urriaren 25etik 29ra izango da herrian makina bat ekitaldi eta hitzaldiz gozatzeko aukera. Egunez-eguneko egitaraua jarraian duzue:

Urriak 25, astelehena:

17:00etan: Buruhandiak eta trikitixa.

19:00etan: 'Adin nagusiko pertsonentzako Osasun Orientabideak. I. zatia' gaiari buruzko hitzaldia Herri Zineman, Migel Anjel Goia Del Amo medikuaren eskutik. Bereziki adin nagusientzako da hitzaldia.

20:00etan: 'Legorreta: Euskararen etorkizuna' gaiari buruzko mahaingurua Udaletxeko Areto Nagusian. Udaleko, Ugara Herri Ikastetxeko eta Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politika-rako Idazkaritza Nagusiko ordezkariak izango dira.

Urriak 26, osteguna:

17:00etan: Puenting eta Eskalada herrikoia Udal Pilotalekuan.

19:00etan: 'Adin nagusiko pertsonentzako Osasun Orientabideak. II. zatia' gaiari buruzko hitzaldia Herri Zineman, Migel Anjel Goia Del Amo



Irlandako pakebideratzeko prozesuari buruzko hitzaldia izango da ostiralean.

medikuaren eskutik.

22:00etan: Blues eta Jazz Musika kontzertua Herri Zineman, Pargingsong' s taldearen eskutik.

Urriak 27, ostirala:

16:00etan: 'Drogomenkotasunen fenomenoarekin zer egin' gaiari buruzko hitzaldia Udaletxeko Areto Nagusian. Askagintzako kide eta Hernaniko Udaletxeko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Teknikari den Txus Congilen eskutik. (Haurtzandegi zerbitzua izango da).

20:00etan: 'En el nombre del padre' filmearen emanaldia Herri Zineman. Jarraian: 'Irlanda Pakebideratzeko

Prozesua' gaiari buruzko hitzaldia izango da, Radio Euskadi - Euskadi Irratiko nazioarteko kronista den Jesus Torquemadaren eskutik.

23:00etan: Legorretako I. Mus Txapelketako Bilkoin K.K.E.-n. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du.

Urriak 28, larunbata:

11:00etan: Haur jokoak Lupi-lapa Aisialdi Taldearen eskutik.

15:00etatik goizaldeko 3etara: Zine Marathoia Herri Zine-

man.

17:00etan: Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoak Udal Pilotalekuan.

Urriak 29, igandea:

10:00etatik 14:00etara: Euskal Herriko Artisautzaren erakusketa. Talogileak, sagardo eta ardo dastaketa. Goiz osoan zehar trikitixa entzuteko aukera izango da Eneritz eta Naiararen eskutik.

11:30tik 14:00etara: Ordiziako Laguntasuna Errondailaren kalejira.

12:00etan: Buruhaundiak eta trikitixa.

13:00etan: Herriko soinu-jole eta dantzari gazteen emanaldia Herri Pilotalekuan.

ITSASONDO

Iñurrategitarak eta Gari herrian

Udalerri txikietan ez da erraza proiektuak edukitzea edo horiek egiteko gai izatea, izan ere gehienak azpiegiturarik gabe baitaude. Horregatik 4.000 biztanletik beherako Udalentzako programa berezia garatu du Eusko Jaurilaritzak. Gauzak honela, Itsasondok izango du urriaren 16tik 22ra programa honetaz gozatzeko aukera. Jarraian dituzue egitarauaren xehetasunak:

Asteazkenetik igandera bitartean,

18-GOIERRITARRA

Iñurrategi anaiek kirolean egindako bidaiaren laburpena emango dute, 5 ikus-entzunezkoetan. 'Yosemite 1989-Pumori 1990' eta 'Makuluko espedizioa, 1991' ikusteko aukera izan duzue asteen zehar. Ostiralean 19:00etatik 21:00etara, 'Everesteko espedizioa, 1992' eskainiko dute; larunbatean 18:00etatik 20:00etara 'K-2ren ipar ertzeko espedizioa, 1993' eta igandean 12:00etatik 14:00etara 'K-2 espedizioa Cessen bidetik, 1994'.

Bestalde, aste guztian zehar hortxe dabilta etxeoandreak zeramika tailerrean, jo eta ke beraien abileziak erakusten.

Ostiralean, hilaren 20an, '19.1.91 Zuzenean' bideoa, orain deseginda da goen Hertzainak rock-taldeak eskainitako kontzertua izango da, Garik berak aurkeztuta. Eta larunbatean, haurrentzako zinea izango da: 'Haur lehoia'.

ZUT: "Gure kritikak zeharo konstruktiboak dira"

Aurreko alean, dakizunez, HB-k lehen hiru hilabeteko udal-gestioaren gainean plazaraturiko txostenaren berri eman genuen. Hori dela eta, ZUTen iritzia jakitea interesgarria iruditu zitzaigun, eta hor ibili gara arduradun batzuen botoiak saketzen. Gauza guztien gaintik, kritikoak bezain konstruktiboak izan nahi dutela adierazi digute. Zentzu horretan, HBren akusazioa ez omen da saihests-bidetik irten eta mezularia hil nahi izatea besterik. Bestalde, HB-k zinegotzien soldadak jeistearekin egin nahi izan duena fatxada-garbiketa baidetik ez omen da; itxurakeria hutsa. Soldada hori ondo justifikaturik egoteaz gain, Haziendako kutxak beste erabaki batzuk askoz gehiago estimatuko omen lituzke.

Kontratazioei dagokienean ZUTek beti eta nonnahi errespetatu omen du legea; ez, noski, berak eta berari kome-ni zaion eran sortutakoa, horretarako dauden gure erakundeek aldarrikaturikoa baizik.

Pintadak kentzea alkatearena ez baino HBren erabakia izan omen da. "Eta nor da HB udaletxeko langileei lana agintzeko?" galdetzen zuten ZUTeko solaskideek. Bestalde, demokrazia ulertzeko oso modu berezia omen HBk, adierazpen askatasuna beraiek agintzen duten tokian bakarrik balego bezala.

Udalaren egoera ekonomiko negargarria aipatzen zuen HBk. Horren kontra ere eman digu erantzunik ZUTek. Inbertsio ikaragarriak egin omen ditu agintean egon den lau urtetan. Galdera hau egin zigun: "Zaldibia zer da, gaur lau urte baino aberatsago ala pobregoa?". Guk ezin erantzun, ordea, eta be-



raiek segitu zuten: "Gaur askoz ere patrimonio handiagoa dauka, halako puska baten ere, milioi askoko aldearekin. Hori ikusi nahi ez duena itsua dela esan eta adibide hauek ipini zizkiguten: herriko plaza, Olaldeko parkea, Karre-ranea, Luberri eta Osatuburuko lokalak, arbola landaketa ikaragarriak... Horretarako egin behar omen da ateak jo, gestionatu eta lortu. Kritika destruktiboak eta maltzurra, benetan, subentzio politikoak izan dituztela esatea omen da. Obejtiboki Zaldibiaren onari begiratzea omen da kuestioa, eta beste guztia kontu zaharra baino ez.

Etxebizitza sozialetan ZUTek utzi duen milioi inguruko ematekoa aipatzea txistea izango dela esan ziguten, bestela ez omen da posible. Poligono horretan HBk utzi omen zizkien kaka guztiak utzita, hori esan egin behar omen da! Komertzimendu moralak balio balu, zenbat gauza esan omen litezke!

Iztuetaren eskulturaren gainean ere esan ziguten zerbait. Gauza asko eztabaida omen litezke, baina Zaldibiko pertsonaia unibertsalenak hori eta beste horrebesta eta gehiago merezi duela omen da inolako dudarik ez dagoena.

Santu Guztienetarako zentroak

Azaroaren bata, Santu Guztien Eguna, gainean dugula eta, Eguzkitza baserrikoek lore-zentroak egiteko enkarguak hartzen dituztela jakinarazi digute. Interesaturik dagoenak dei beza 88 98 83 telefonora.

Ardiki Eguna

Iazko esperientzia positiboa ikusirik, aurtun ere egingo da

Ardiki Eguna Zaldibian. Urtarrilaren 29an izango da. Iaz bezalaxe, erakusketak etnografikoa, mondeju-lehiaketa eta beste ikuskizun ugari izango da. Baina iaiztik aurtuna aldaketa bat dago; aurtun gazta-lehiaketa ere izango da. Aralarko artzainek hartu ahal izango dute parte lehiaketan, eta berek egindako gaztekin, noski.

Ondorengo egitaraua prestatu da aurtengorako: **9:00etan:** txalaparta soina eta goizean goizetik trikitixa. Artisautza erakusketa: herritarrak artileak egiten, gazta egiten, gazta ontzen... **12:00etan:** mondeju eta gazta lehiaketen hasiera pelotalekuan. Mondeju eta gazta pintxoak ere salgai jarriko dira tabernan. Tarteka bertsolarien saioa izango da. **14:30an:** bazkaria: mondejua, ardikia piparrekin, asdikia saltsan, gazta, ardoa, kafea, pattarra eta purua. Dena 1.500 pezetetan. Trikitixa eta bertsolariak izango dira bazkal ondoren. Bazkarirako txartelak, 160338 telefonoan edo Zaldibiako taberna guztietan eta Ordiziako Etxaniz-en lortu daiteke.

 **Rufino Iraola**



GOIAGI
OKINDEGI
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

- ♦ Egurrezko labeak egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Modulo hau
3.000 pzta.
kostako zaizu
10 aldiz eginez gero
2.500 pzta.

Agur-afari berezia Marikarmen Aranbururi

Ostiral honetan, hilak 20, egingo diote agur-afaria Eskolako lanetan erretiratu berria den Marikarmen Aranburu andereñoari. 25 urteko historia eta lanak utzi ditu atzean. 1970ean hasi zen lanean Okaizti-azpian zegoen Ikastolan. Hurrengo urtean Gabillene-Zaharrera eta handik aurrera zahar eta berri, 25 urte.

Bera hasi zen urtean, orain 25 urte, 30 bat ume omen zituzten Ikastolan. Herrian zehar berriz, Eskola Nazionalak San Martinen eta San Gregorion, neska eta mutil, Ergoien, Aien, Arrondoko Kamiñon... Gogoan ditu hasiera hartako lan-kideak eta haurrak... Marikarmen Iztueta, Elisa Bustillo eta bera erakusle lanetan. Gogoan dauzka, liburu haundi bat betetzeko adina kontu eta pasadizo.

Orain agur-afaria. Joan nahi duzenok, eskatu txartelak Eskolan edota Bittor Jatetxean. On egin eta urte-askotarako.

Bostgarren umea

Ez gaude ahaztuta. Agorraren 9an jaio zen, Amaia Lertxundi Gomara. Aitte Zumaiakoa, ama Trintxerpekoa, Aieko 'Pio'-nen bizi dira. Kasualitatez, agorraren 9an bi ume jaio ziren, Aimar Zaldia eta Amaia Lertxundi. Neskato bikaina omen da. Gustora dira gurasoak eta aietarrak. Zorionak!

Jubilatuak sasoiko

Primeran joan zen Atsedentoki Elkar-teak antolatu zuen Ibilaldi Neurtua. Buelta oso polita, hankako minik gabe egin zuten 20 bikotek. Sariak ere eman ziren, 'merienda' legea denentzat izan

20-GOIERRITARRA



'Bernedo'neko granjan Ikastolakumeak.



'Gabillene Zaharrean' denak gazte.

bazen ere. Aurrena: Jenobeba Etxeberria eta Juanita Munduate. Bigarren: Joxe Rezola eta Joxepa Eskisabel. Hirugarren: Ramon Goikoetxea eta Imanol Sanpedro. Laugarren: Doroteo Barandiaran eta Mercedes Etxeberria.

Jentilbaratza zai

Igandean, hilak 22, Jentilbaratza izango da, Ataun Kirol Elkar-teak hilero antolatzen duen irteera. Zuzenean tontorrera igo gabe, inguruko beste leku batzuetatik barrena jarri dute ibilia. Gainean zai izango dute, Nafarroako gazteluaren harresia eta On Joxemiel zenaren omenez jarritako lauburua. Jentilen arrasto bila, Jentilbaratza hasi zituen bere bizi guztirako lanak.

'Gaztina jana'

Larunbat honetan, hilak 21, 'Gaztina jatea' antolatu du sortu berria den Gazte Asanbladak. Auzokerien aurka, herritarren arteko giroa hobetzea du helburu talde honek.

Bazkide bila

Horretan dabilta jo ta su Ataun Kirol Elkarteko arduradunak. Iaz sortu zen, 220 bazkide izan ditu eta kurtso berri honetan haunditu egin nahi dute kopurua. Diru-beharrak ere ez dira txikiak: iaz milioi t' erdiko presu-postua eta aurten 1.900.000 pezetakoa.

Ekintza asko egiten dute: Areto futboleko bi talde, 30 neska eta mutilekin eta Pilota taldea, 6 pilotarirekin. Horretaz aparte, futboleko txapelketak, mendiko irteerak, Ibilaldi Neurtua, etab.

Bazkide egin nahi duenak kuota hauek ditu:

18 urtetik gora 1.500 pezeta; 14tik 18ra 500 pezeta eta 14tik behera 100 pezeta.

Izena emateko jo hauengana: Iñaki Imaz (18 0172), Iñigo Goikoetxea (18 0444), Jexux Goikoetxea (18 0297) eta Xabi Eskisabel (18 02 50).

Kanpusantuak irekita

Datorren astelehenetik aurrera, hilaren 23tik azaroaren 5erarte irekita egongo dira hilerriak goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte. Santu Guztien egunerako txukunketak eta gainerakoak egiteko modua izango da.

Jon Aizpurua

Iparra eta Eduardoren omenez

Idiazabalgo Kimu Elkartek, urrian omendu ohi ditu urtero Eduardo eta Iparra gudariak. Aurten ere ez dute hutsgeteko asmorik eta beraien agurra ekintza sorta eder batez luzatuko omen die bi eroriei.

Urriaren 27an emango zaio hasiera omenaldiari eta horretarako Arnaldo Otegi etorriko da. Berau Eduardoren lagun mina omen zen, bere kide urte askotan izana eta azken unean ere bere ondoan egon zena. Kultur Etxean izango da solasaldia, arratsaldeko 8ak aldera hain zuzen ere.

28an berriz, larunbatez, Mus Txapelketa azkarra izango dugu Kimu Kultur Elkartean. Bertan parte hartu nahi duen guztiak, jakin beza arratsaldeko 4etan amaitzen dela izena emateko epea. Gaueko 10:30ean berriz, Igarondo Pilotalekuan, ekintzarik berezi eta dibertigarrienari egingo omen zaio leku. Hika antzerki taldearen eskutik, abestiak, dantzak eta musika tartekaturik 'Easoko ederren probokazioa' lana ikusi ahal izango baitu bertara urreratzen den guztiak.

Azkenik, 29an, Atxurbi gudari mendira ohiko igoera egin asmo dute. Halere goizeko 9ak aldera herriko enparantzan elkartu eta hilerrian lore eskaintza egingo zaie bi gudariei. Atxurbira iristean, ekitaldia txalapartarekin hasi eta trikitixa, bertso, kantu



Iaz Atxurbin Eduardo eta Iparrari egin zitzairen omenaldia.

eta abarrez osatuko omen da. Omenaldiari amaiera bapo emateko, guztientzat hamaiketako eta bertan lagunarteko bazkaria eginez bukatuko da eguna.

Lerro hauen bidez antolatzaileek gonbitea luzatu nahi die bertara urreratu nahi duen guztiei.

Marronen emanaldi sorta

Gure herrian ez dira gutxi mendia gus-toko dutenak. Ibilaldi luze eta arrisku-tsuak diapositiba bidez gozatzea gus-

toko dutenak ugari dira. Beraientzat dakargu beraz ondorengo berri hau. Azaroaren 2an hasiko da ataundarra diapositiba emanaldiak eskaintzen, eta guztira 4 izango dira. Azaroaren 2an Alaskara eramango gaitu Marronek, ordubetxoko batetarako bada ere. Emanaldi guztiak Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 7:30ak aldera. (Hurrengo alean izango dituzue beste emanaldien xehetasun gehiago).

 Aloña Galarraga

ORMAIZTEGI

Odol emaileen eskertza

Ormaiztegiko Odol-emaile Elkartea orain dela 25 urte inguru sortu zen eta orduz geroztik borondate hutsez urtean bi odol ateraldiren bitartez dagoen odol beharrari aurre egiten laguntzen du. Gaur egun Elkartea hau 144 odol emailek osatzen dute, inguruko herrietako (Gabiria, Ezkio-Itsaso...) odol emaileak ere badirelarik.

1995. urteari dagokionean 2. odol ateraldia irailaren 29an egin zen eta 37 lagunek eman zuten odola. Elozegi Ardote-giari, Deba, Kanpos eta Murua ha-

rakinei eta Pedro Zulaika medikuari kontsultorioa uzteagatik, eskerrik beroenak bidali nahi dizkie Odol-emaile Elkartekoek.

Arropa eta traste zaharren bilketa

Sasieta Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuen artean arropa eta traste zaharren bilketa aurkitzen dira. Arropa bilketa hil bakoitzaren 3. ostegunean egingo da, beraz urriaren 19an. Traste zaharren bilketa berriz, hilaren 1. go eta 3. ostiraletan. Urriaren 20an, azaroaren 3an eta 17an.


Mendi Elkarteko irteerak

Igandero Ormaiztegiko Kirol Elkarteko mendi sailak irteera desberdinak egiten ditu mendietara. Urriari dagokionez, 22an Irimo aldera abiatuko dira, 29an berriz, Sagastarri-Lareo aldera.

 Aitziber Murua

Jatetxe berri bat herrian uztaila ezkerotik

Otegin-a-goikoa baserria notizia da: bertako Jabier Matxain semeak, baserriari irtenbide bat eman asmotan, obrak-eta egin eta erretegia jarri baitu martxan. "Tailer batean lan egiten nuen, oso lotua zen, eta aspertuta nengoen piska bat. Jatetxea oraindik ere lotuagoa da, baina nire kontura gustorago nabil. Baserri bezala esplotatzeko txikia zen eta hainbesteko terrenorik ez du. Gainera animaliak gustatu egin behar dira baserrian aritzeko", adierazi digu Jabierrek. Gauzak honela eta uda partean Gaintzara geroz eta jende gehiago eta udazkenean ehiztariak izaten direla ikusirik, erretegia jartzea erabaki zuten. "Negurako aldamenean dugun lokalean upel pare bat jartzeko asmoa daukagu, sagardotegi tankerara", aurreratu digu gaintzarrek.



Pentsatu eta egin. Martxa onean hasi da Oteñe. "Hasieran zerbait sinpleagoa jartzeko asmoa genuen, baina behin obran hasiz gero, batek bestea eskatzen du eta azkenean erretegia jarri dugu. Ongi antolatuz gero, 60 bat lagunentzako lekua dago. Ogitarrekoetatik hasi eta arrainik freskoetara-

noko aukera dugu. Espezielidadea parrilan egiten dena, bai haragia, bai arraina. Postrean berriz, intxaur eta gazta pudinga". Dena den, denboraldiko produktuekin, garaian-garaikoarekin lan egiteko asmoa dute. Guzti honetarako, Martin Santamaria sukaldari hernaniarra du alboan Jabierrek.

Larraitz bidetik Gaintzara bi-dean, ezkerretara dagoen lehen baserria dugu Oteñe. Eskubi aldean duen aparkalekuak nabarmentzen du baserria baino zerbait gehiago dela. Ingurune paregabea, bista ondo gozatzekoa.

Astelehenetan izaten da itxita Oteñe. Aurrez lekua eta menua enkargatuz gero, askoz ere hobeto. On egin dizuela!

M.A - L.A

OLABERRIA

Udal berriak lehen batzarra egin du

Pasa den urriaren 5ean Udal berriak lehen batzar arrunta egin zuen eta honako erabakiak hartu ziren:

- Herriko alde zaharrari dagokionez etxe berriak egiteko proiektua aurrera eramatea, 'Gas Ciudad' delakoa jartzea eta txozna bat jartzea urte osorako.

- Elizari 6 milioi gehiago ematea onartu zuten. Eliza berriaren kostua 62 milioitakoa izan da udalak dagoeneko 14 milioi inguru emanak bazituen ere, orain aipatutako 6 milioi horiek emango dizkiete.

- Zerbitzu militarari dagokionez udala orain arte intsumisioaren alde egon arren, erabaki hori atzera bota zuten alkatea epaiketara joatea nahi ez dutelako.

- Kultur gaiei dagokienean, euskara ikasten ari direnei diru-laguntzak ematea onartu zuten; baita langabezian dagoen jendearen %20a merketzea Kiroldegiaren prezioan. Bestalde Nafarroa Oinez, Kilometroak eta Herri Urratsi

45.000 pezetako dirulaguntza ematea onartu zuten. Gurutze Gorriari berriz 25.000 pezetako laguntza emango zaio.

- Hirugarren Munduaren laguntzari dagokionez, proiektu hauei ematea erabaki zuten: 'Un niño en la calle', 'Medicos sin fronteras', 'Comision Ayuda Aeropuerto de Vitoria' eta 'Asociacion ayuda niños Luis'.

Hurrengo batzarre arrunta hemendik hiru hilabetetara izango da.

Jubilatuak direla eta

Zaharren Egoitzako jendea animatua dago gimnasia egiteko. Hilabete honetan hasi nahiko lukete gimnasiako ikastaroarekin, baina jubilatuez gain jende gazteagoa ere animatuko balitz bi ordu-tegi ezberdin egongo lirake. Karmen Arrutxi lehendakariak esan zigunez bazkide kopurua haunditzen doa eta dagoeneko 212 dira. Zaharren Egoitzako juntak proiektu asko ditu buruan, lehena urriaren 25ean burutuko delarik. Egun

honetan jubilatuek egun bateko bidaia egingo dute Lodosara. Hala ere denak ez dira albiste onak zeren gimnasioko zorua altxatua dago. Konponketa bat behar duenez, Zaharren Egoitzako ki-deak ere egon ziren Udaleko batzar arruntan.

Langabetuen errolda

Olaberriko Udalak langabetuen errolda berritzeari ekin dio. Horretarako herriko langabetu guztiek izena eman beharko dute nahiz eta lehen inskribatuta egon. Urriaren 31 izango da izenemateko azken eguna eta aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da: langabetu orriaren fotokopia, NANren fotokopia eta argazki bat. Udalaren ustez edozein lanpostu lortzeko eskubidea eduki ahal izateko, ezinbestekoa da langabetuen errolda horretan inskribatua egotea.

 Nagore Goiburu

Lixiba jotzeko harriak bistaratuak



Lixiba jotzeko 3 harri hauetara inguruko baserritakoak etortzen ziren; Malkorre aldetik hasi eta Etxeberri aldera artekoak.

Armaolako aldaparoa, Errotaberriko presatik ura bideratuz Armaolako errota mugiarazteko egin da. Baina errota funtzionatzeari utzi zionetik Errotaberriko uhatea itxi eta ubidea sasiz eta sastrakaz estalia geratu da. Ubide horretan bistaratu dituzte garai batean lixiba jotzeko erabiltzen ziren hiru harri eta bere ingurua.

Aldatabarrengoiko Pilar Goikoe-txeak eta Aldatabarreneko Maria Lizarbidek adibidez, oraindik gogoratzen dute nola joaten ziren herri horietara lixiba jotzera. *"Lixibea hilean behin edo eitten tzan, izaraketa ondo illundu ondoren. Familikee haundik izaten tzien ordun eta 20ren bat izara igual juntatzen tzien. Lixibea eitte eun guztiko lanare izaten tzan batzutan"*.

Tiñean jabondu

Erropa, harizkoa edo ehunezkoa, etxean jabontzen zen "tiñea" deitutako ontzian, etxean behi seboz egindako jaboia, surtako hautsa eta erramu hostoak botata. Tiñearen zuloetatik, honek azpian zuen lixiba-harrira pasatzen zen goitik botatako ur irakina. Ur jabondua aprobetxatzeko lixiba-harritik berriro jaso, irakinarazi eta prozesu berari ekiten zioten behin eta berriro. *"Surtako hautsek zikiñe xamurtzen tzon eta erramue berriz usaie emateko izaten tzan"*. Tiñea, lurrina zeriola etxez kanpotik egoten zen. *"Hara! hasi die horikee lixibea eitten!"*.

Lixiba jotzera

Jabonduaren prozesua amaitzean, astasaskitan, karretilan, edo gizonez-koren batek bizkarrean hartu eta erropa jotzeko harrietara. Jaboirik handiena kentzeko uretan zabaldu ondoren, zaku zaharren bat azpian zela belauniko jarrita hasten zen erropa jotzea, azken zikinak atera eta guztiz urberritu edo akklaratzeko. Berriro erropak kargatu eta ixeri edo sasi gainean lehortzen utzi eta sorora, behi zaintzera, sukaldara edota Pilarrek dioen bezala San Sebastianerako apretak jostera.

Segurako oroigarriak

Behoko Alkilerreko dendan eta jendearen eskariei kaso eginez, Juan Migel

Larreak tamainu ezberdinetako plater, hautsontzi, pitxar eta edalontziak atera ditu oroigarri bezala. Guztiak kolore urdinekoak dira, urre kolorez plasmatauta Zerain portala edo herriko ikuspegi bat dutelarik.

Garaipenak futbolean

Segura futbol taldeko 4 ekipoek azken 3 jardunaldietako partidu guztiak irabazi dituzte. Liga hasi zenetik infantilek 3tik 3, kadeteek 4tik 4, jubenilek 5etik 5 eta errejonalekoek 5etik 4 garaipen daramatzate.

Torero! Torero!

Alternatiba hartu baino astebete lehenago egin zuten paseilloa herriko torero bizardunak eta bere banderilleroek. Azken hauek, Iruñeara eraman zuten asteburu guztirako. Benetako korrida ordea, urriaren 14an hasi zuena.

Jokin Ruandara

Hilaren 16an irten zen Jokin Izagirre Lazkaoko Txomin Barandiaranekin batera, Afrikako herrialde honetako misioetan hainbat lan, istalakuntza eta konponketa egiteko asmoz. Hara eramateko jaso dituzten laguntzen artean bere koadrilarena dago, hain zuzen argazkiko torero eta kapeatzaileena: 120.000 pezeta. Errez esaten da!

Joseba Telleria




Argazkian ikus daitekeen bezala, bi belarriak eta buztana faena hasi aurretik eman zitkioten.

RAMON GARATE KIROL MEDIKUA BEASAINGO KONTSULTORIOAN:

“Kirola egitea garrantzitsua da, baina era kontrolatuan”

Ramon Garate 38 urteko tolosarra da eta Belauntzan bizi da. Kirol medikuntzan aditua, 9 urte daramatza Beasaingo zentru mediku kirurjiko larrialdietan lanean. Lanik gehiena mendizaleekin egiten badu ere, kirolari guztientzat ditu aholku baliagarriak.



G- Zein da zure lana?

E- Beasaingo kontsultaz gain, San Juan de Dios-ko kirol-medikuntza kontsultorioan eta Tolosako Asuncion klinikan egiten dut. Federazio mailan, kontseilari medikua naiz Euskal Herriko Mendi Federakuntzan eta Gipuzkoako Neguko Kirol Federakuntzan. Han hemenka kolaborazioak ere egiten ditut.

Lan honetan larrialdiak egiten, sendatzeko “esku” hori ez da galtzen eta hau neretzat oso garrantzitsua da. Hasieran lan istripuak bakarrik atenditzen nituen, pixkanaka jendeak jakin zuen hemen kirol-mediku bat zegoela eta orain kirolari gehiago etortzen da lan istripua baino. Batez ere arazoak dituzten mendizale guztiak hemendik pasatzen dira.

G- Kirol medikuntza, prestakuntza mailan edo lesio mailan?

E- Kirol medikuntzaz hitz egitean, beti pentsatzen da, kirolari lesionatu bat eta mediku bat atenditzen. Kirol medikuntzak praktikan, bi atal ditu: prebentzioa eta asistentzia (lesioak). Hirugarren bat dago ezezagunagoa, ikerketa-rena. Medikuntzan, orokorrean garrantzitsuena eta gehiena kostatzen dena prebentzioa da. Batez ere errekonozimentua egiten da, kirolari bakoitzari probak egin eta nola dagoen ikustea. Honela arazoak aurkitzeaz gain, laguntza tekniko bat egiten da, entrenatzailearekin koordinatuta ahal den gehien hobetzeko, ahal den denbora

gutxienean eta arrisku gutxienarekin. Zenbait medikuk, beraiek planifikatzen dute kirolariaren entrenamendua, honek denbora asko eskatzen du, nik hau egiten ez badut denbora faltagatik da. Kirolean trinomio bat oso garrantzitsua da: kirolaria, entrenatzeilea eta medikua. Hiruen artean harreman etengabea egotea beharrezkoa da.

Prebentzio mailan oso garrantzitsua dietetika da. Honetan beti ari gara elikaduran gabeziren bat dagoen azterketak egiten. Edozein pertsonentzat elikadura osasuntsu bat garrantzitsua bada, kirolari batentzat gehiago. Bere ahalmen fisikoaren mugan aritzen denez, edozein gabeziak arazoak sor ditzazke.

G-Eliteko kirolean, medikuntzari garrantzi handia ematen zaio, berdin gertatzen al da oinarrikoan?

E- Kontzientziatzea geldoa da, baina etengabea. Agian duela 15 bat urte instituzioetatik kirola osasun bezala bultzatzen hasi zenean, zirudien mundu guzia kirola egiten hasiko zela eta edozein modutan eginda arriskutsua ere izan liteke. «Boom» baten ondoren geldialdi bat etorri zen, baina pixkana-

ka goraka doa. Jende hau bi taldetan bereiztu liteke:

1.- Gazteak, kirola entrenamendu bezala egiten duena, baina zenbait helburu jartzen dituen, herri-lasterketetan denbora bat egiten etabar.

2.- Kirolik ez duena egiten, 40 urte ego gehiagorekin arazoren bat izan duena eta zaintzen hasi dena. Bizitza aldatu nahi du eta kirola terapi bezala hartzen du. Hauek arrisku handia dute, hain ondo aurkitzen dira eta hainbeste gogorekin hartzen dute, batzuetan obsesionatu egiten dira. Jende hau medikuki kontrolatuta egon beharrean dago eta zenbait kasu ezik kontrolpean ditugu, gutxienez urteroko errekonozimentua eginez. Gazteetan berriz, jarraipen hau zailagoa da, talde edo kiroldegi baten egituraren ez badaude behintzat. Hala ere arrisku gutxiago dute.

G- Entrenamendu maila ere ari al da hobetzen?

E- Bai, geroz eta gehiago prestatzen eta planifikatzen da, ez dira gauzak lehen bezala ero-moduan egiten. Planifikazio batekin, denbora berean, adibidez 3 astetan, % 200 hobetu daiteke. Prestatzaile fisiko batek egin dezake plangintza hori eta gainera oso erraza da.

G- Kirola egiten duenarentzat zeintzuk dira oinarriko gomendioak?

E- Garrantzitsuena, kirola egiten jarrai dezatela baina era kontrolatuan, hau da: erregularrak izan daitezela, ez dezatela aste batean asko eta bestean baxterez egin. Honek mesede egin beharrean arazoak ekar litzazke, tendoi eta muskulo arazoak. Astean 3-5 egun tartean egitea da egokia, ez oso gogor eta ez oso suabe, aktibitate aerobiko bat, iraupenean, gutxienez 40 minutu. Denbora hau iraunez edozein kirol egin liteke: paseatu (helduek), korrika egin (gazteek), igeri, txirrindua, denbora izan ezker media...

Beti gomendatzen duguna da, kirol iharduera hau bi kualitate garrantzitsuekin osatzea. Alde batetik gimnasia, asteen behin gutxienez gimnasia taula oso bat egitea, lantzen ez diren gorputz atalak lantzeko. Beste aldetik, estiramentuak egitea, elastizitatea lantzea. Hobe aurkitu eta egun batetik bestera errekupekatzen laguntzeaz gain, elastiko dagoenak lesioak izateko askoz ere posibilitate gutxiago du.

G- Behobia-Donostia laisterketa gainean da eta goierritar askok parte hartuko du. Azken hilabeterako ze aholkatzen diezu?

E- Normalean informatuta daude baina aholku garrantzitsuenak hauek dira: lehen bi asteetan gogor entrenatu badaiteke ere, azken bietan entrenamendu lasaia behar da. Azken asteen berriz batez ere oso lasai ibili behar da, agian forma galtzen ari garela irudi lezake baina ez da horrela. Gimnasia eta estiramentu asko egin behar da eta azken bi egunetan hobe da korrikarik ez egitea.

Orokorrean, entrenamendu ondoren karbono-hidrato askoko jana komeni da: makarroi, espageti, patata egosi, arroza... Beharrezkoa da, azken egunean pasta asko jan eta eguneko gosaria proba hasi baino gutxienez 3 ordu lehenago egitea. Laisterketa arte gehiago ez jan eta ur asko edan behar da, bai aurretik, baita korritzen ari den bitartean. 3 hilabetetako prestakuntza urik ez edateagatik pikutara joan daiteke.



G- Negua ere badator eta eskiatzaile ugari da gure artean. Hauentzat ere izango dituzu aholkuak.

E- Eskian lesio asko eta oso gogorrak ematen dira, ligamentuak batez ere. Operatu beharra eta sendatzen hilabete asko behar dutenez, prebentzioak garrantzi handia du. Esaten ari gara kirolean berotzea oso garrantzitsua dela, baina eskian leku eta erropen eragozpenengatik edo, ez da egiten. Eguneko lehen jeitsierak oso-oso suabe egin behar dira, ia ikasten ariko bagina bezala, geroztik eta jeitsiera gogorragoak

egiten joan behar da. Jendeari aholkatzen diogu dagoeneko prestakuntza fisikoa egitea. Batez ere gimnasia, hantketako muskulo estensoreak (cuadriceps) lantzea, korrika egitea ere bai, bestela txirrindua ere izan liteke. Muskuloak indartu eta elastizitatea asko landu behar da.

G- Nola doa Beasainen egiten ari zareten «Bizia-Osasuna» kanpaina?

E- Oso emaitza positiboa eman du. Honelako ekimenak garrantzitsuak dira eta herri guztietan egin beharko lirateke. Gaixoa ospital edo anbulatorioa eraman beharrean kiroldegira eramatean lasaiago dago. 30 pertsona ari dira terapia egiten. Duten arazoaren arabera 3 taldetan sailkatu ditut:

1.- Arazo handirik ez dutenak, moles-
tiak dituzte bizkarrean postura txar edo
esfortzuengatik. Terapi honekin dife-
rentzi nabarmena somatzen dute eta
beti egitea komeni zaie.

2.- Arazoren bat izan dute eta moles-
ti kronikoren bat dutenak. Hauek hobe-
kuntza nabari dute gimnasia eta igerike-
ta bidez.

3.- Bizkarreko arazo handiak dituzte-
na, 4-5 dira. Hauen bizitza kalitatea
hobetzen saiatzen gara, baina ez dira
sendatuko. Kontrolatzen jarraitzen
dugu eta emaitza ona ari da ematen.

 **Mikel Albisu**



**Kirol artikuluetan
aukera zabala**

lurre 4. blokea
5. lokala
☎ 67 48 26
TOLOSA

Filipineta, 2
☎ 88 11 09
ORDIZIA



Marino Tabuyo, 6
Tfnoa.: 32 15 94
DONOSTIA

Laskorain, 7
Tfnoa.: 65 49 16 - Faxe: 65 17 27
TOLOSA



Tfnoa: 885500 **ORDIZIA**


Modou N'diaye senegaldarra Lazkaon

Guraso, anaia eta lehengusuen atzetik etorri zen Lazkaora Modou N' diaye senegaldarra. Lazkao "ondo-ondo". Lazkaotarren artean "lagun asko-asko" du. "Nik hemen bizi nahi dut. Nik nahi hurbil izan euskaltegia Maizpide". 22-24 senegaldarreko taldea dira Gipuzkoan, Modou gainontzekoen irakasle izanik: "Haiek etorri nigana eta galdetu nola hitz egiteko euskara". Gazteleraz oster, pattal samar moldatzen da. "Castellano? Saltzeko bakarrik".

Eta horretantxe ibili da Modou festarik festa, egunero. Festarik festa lan egin behar gauero. Honen 'etsaiak', bai, benetan daude ero, eta zigortu egin zuten lanera huts egin ez zuen batean. "Ni joan Sanferminetara baimena gabe, horregatik. Ni errudun. eta haiek harrapatu nire gauzak. Hitz egin udaltzainekin eta haiek esan zidaten nik ordaindu zerbait", pitxiak berreskuratu-ko bazituen. Estualdi ederra pasarazi zioten, oin bikoek bezala, baita lau hankakoek ere. "Nik inoiz ez ikusi jendea behiekin kalean, bakarrik han, Iruñean. Da oso polita. Nik oso beldurra!".

"Ez dut belarri motza"

Ekaina, uztaila eta abuztua. Hiru hila-bete, pitxi-saltzaile. R-6a gainezka bete eta Iruñera, Trintxerpera, gero Madalenetara, Erreteriarra. Luzea da soka: "Bergaran, bakarrik euskara. Azpeitian ere bai, bakarrik euskara. Eta Elizondon; Elizondon daukat asko lagunak. Eta Lezon. Lagun asko-asko-asko". Hasieran bezero zituenak, lagun azkenerako, saltzaile prestu eta bizia baita Modou: "Nik ez daukat belarri



Modou N'diaye ia lau urte daramatza Lazkaon. Arg: Edurne Koch.

motza. Nik entzun euskaraz hitz egiten ari bazara, eta erantzungo dizut euskaraz".

Joana da udaldia eta behin iraila igarota, kaput herrietako jairik gehienak. Finito Modouren diru iturria. "Bakarrik daukat lana udan, baina uda ondoren nik irabazi gutxiago, bakarrik jateko. Oso gogorra da niretzat". Bai eta Senegalen utzi zituenentzat ere, irabazitakoaren zati handi bat etxekoei bidali ohi dielako. "Hemen bakarrik bizi naiz eta pentsatu asko. Nik ikusi emakumeak, nik pentsatu. Hiru seme-alaba dauzkat, emaztea, baina oso urruti nigan. Horregatik nik nahi dut haiek ekarri". Horretarako lanpostu segurua behar du, ordea. "Nik lanpostu bat nahi dut, baina oso zaila". Komunikabide honen oihartzunaz ere baliatu nahi luke: "Zabaldu zuek nire arazoa..."

Sakristau lanetan

Olaberriko eliza konpondu zuen aurreko neguan. Beste lanik ez diote eskaini gure artean daramatzan ia lau urteotan.

"Eta hura apaizari esker", Juan Mari Olaetxea Lazkaoko parrokoari esker. Lagunak dira, eta elkarri laguntza ematen diote. Udaletxean Herriarren Bulegoa zabaldu eta bedekatu zutenean, sakristauaren lanak egin zituen Modouk.

Mezatar joaten da. "Haiek daukate arbela --pantaila, kantuak-eta ikasteko--, beti euskaraz. Ni joan eta entzun. Ni ikaslea naiz, eta euskara hitz egiteko bada, ni joango naiz elizara". Euskarak eraman du, beraz, erlijio katolikoa zertxobait ezagutzera. "Ez dakit ondo-ondo, baina haiek elkarrekin hitz egin Jainkoari buruz". Musulmana den arren, asko gustatzen zaio Jesukristo. "Katoliko bihurtu? Ez, ze nik badaukat asko-asko-asko urteak". 38.

Euskara ikasteko adin mugarik ez da honentzat. "Nork-nori-nor zailena. Eta nor-nork: 'ikusi nauzu', 'ikusi zaitut'. Baina lehenaldian, 'ikusi naute-ikusi ninduten'. Oso zaila!". Saiatua da, eta ez zaizkio nahikoa Maizpide euskaltegian egunero egiten dituen bi orduak. "Nik nahi dut liburua, nahasteko orainaldia, lehenaldia, nor-nori, nor-nork... Badauzkat liburuak, eta beti irakurtzen dut, gauean".

"Bertsoak zer diren ez dakit ondo", baina "bertsolari eta irakasle berdinak dira". Eta Lazko-Txiki zenaren hitzak hartu ditu aintzat. "Hemen dago jende asko, hemen jaioa, baina ez daki euskaraz. Hau da Lazkao-Txikirentzat txarra. Ni etorri eta euskaraz hitz egiten hasi naiz; zuk ez dakizu ezer. Ni zu baino hobea naiz, zuk ez duzu maite odola".

 Alasne Iturriotz



✓ Eguneroko menua, 750 pzt.
✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzt.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin

GOIERRITARRA



88 96 12

Faxa: 88 27 19



Lazkaoko futbolaria 1972an

Lazkaoko futbol txapelketak arrakasta handia izaten zuen garai haietan. Duela 23 urteko argazki hau “Angelete”k utzi digu.

Zutik: Fermin Zunzunegi, Angel Fuentes (Angelete), Jose Manuel Agirre (Minas), Patxi Gutierrez, Jabier Agirre (Paketes), Bittor Irastorza (Zitro), Arratibel (Txispas), Barroso eta Izagirre.

Makurtuta: Martin Fuentes, Joxean Kerejeta (Taugreseko lehendakaria), Jazinto Kerejeta, Txomin Uharte, Zabalegi (Pitxu) eta Fermin Mendia (Xumarra).

Erretratu zaharrik baduzu, bidali Ordiziako 124 posta kutxatilara. Hutsik egin gabe itzuliko dira.

UNTXUNDEI Garajea



OSINALDE Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49

OLABERRIA

“Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak”



**OKINDETA
GARONIA**

K. Nagusia, 35 Elosegi, 14 Sta.Maria, 19

☎ 88 77 58

☎ 88 72 79

☎ 16 00 44

BEASAIN

LAZKAO

ORDIZIA

Aurten Santu Guztietako zentruak

GANBOn

Egunero ordu guztietan aukera handiena

GANBOn

Enkarguak oparitxo sorpresarekin


GANBOn

**GARDEN
GANBO**

Muestrak dagoeneko prest!

Olaberriko Merkatal Gunea

☎ 88 22 55



itxura baino
gehiago...

ANtZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 – Faxe: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA